

## **Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión**

Auditoria-txostena,  
Urteko Kontuak 2018ko abenduaren 31n  
eta 2018ko ekitaldiko Kudeaketa Txostena



*Espainieraz idatzitako Urteko Kontuen Ikuskaritza-Txostenaren jatorrizko bertsioaren itzulpen librea. Desadostasunik balego, espainierazko bertsioa nagusitzen da.*

## *Urteko kontuei buruzko auditoria-txostena, auditore independente batek emana*

Kutxabank Gestión, Sociedad Gestora de Instituciones de Inversión Colectiva, S.A.U. sozietatearen batzar orokorrari:

### *Urteko kontuei buruzko txostena*

---

#### *Iritzia*

Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión-en urteko kontuak auditatu ditugu, honako hauek barne: 2018ko abenduaren 31ko balantzea, galdu-irabazien kontua, aitortutako diru-sarrera eta gastuen egoera-orria, ondare garbiaren aldaketen egoera-orria eta memoria, egun horretan amaitutako ekitaldiari dagozkionak.

Gure iritziz, urteko kontu erantsiek, alderdi adierazgarri guztietan, Fondoaren 2018ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza-egoeraren benetako irudia adierazten dute, baita egun horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion emaitza eta eskudiru-fluxuen irudia ere, aplikatzekoa den finantza-informazioko arau-esparruarekin bat etorritik (memoriaren 2. oharrean identifikatu da), eta, bereziki, horretan bildutako kontabilitate-printzipio eta -irizpideekin bat etorritik.

---

#### *Iritziaren oinarria*

Gure auditoria Espainian kontu-auditorien jarduera arautzeko indarrean dagoen araudiari jarraikiz egin dugu. Arau horiei jarraikiz dagozkigun erantzukizunak aurrerago deskribatu ditugu gure txostenean, *Auditorearen erantzukizunak urteko kontuen auditoriari dagokionez* atalean.

Fondoarekiko independenteak gara, eta beraz etika-eskakizunak betetzen ditugu, independentzia-betekizunak barne, Espainian urteko kontuen gure auditoriari aplikatzekoak direnak kontu-auditorien jarduera erregulatzen duen araudiak eskatutakoaren arabera. Ildo horretan, kontu-auditoriaren zerbitzuaz bestelako zerbitzurik ez dugu eskaini, eta araudi erregulatuarekin horretan ezarritakoa betetz beharrezko independentzia hori kolokan jar zezakeen egoerarik edo gorabeherarik ere ez da gertatu.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen du gure iritzia bermatzeko.

---

#### *Auditoriaren funtsezko gaiak*

Auditoriaren funtsezko gaiak dira, gure judizio profesionalaren arabera, aldi honetako urteko kontuei buruz egin dugun auditorian adierazgarrien gertatu direnak. Urteko kontu guztien gure auditoriaren testuinguruan eta haiei buruz dugun iritzia osatzerakoan aztertu dira gai horiek guztiak, eta beraz, gai horiei buruz uste duguna ez dugu aparteko atal batean bereizi.

**Auditoriaren funtsezko gaiak****Auditorian nola aztertu diren***Zorroaren balorazioa*

Indarrean dagoen legediaren arabera, inbertsio kolektiboko erakundeen objektu soziala, fondoak, ondasunak edo eskubide publikoak atzematea da, kudeatzeko eta ondasunetan, eskubideetan, baloreetan edo bestelako instrumentuetan, finantzarioak edo ez, inbertitzeko, inbertsioaren errendimendua emaitza kolektiboaren arabera ezartzen bada betiere.

Deskribatu den jarduerarekin bat etorritik, Kutxabank Bono, Fondo de Inversión-eko ondare garbia, instrumentu finantzarioetan inbertituta dago batez ere. Fondoaren zorroari aplikatu beharreko kontabilitate-politika, gaineratzen den eranskinaren 3. Oharrean, “*Kontabilitate-printzipio eta balorazio-arau esanguratsuenen laburpena*” eta urteko kontuen memoriaren 6. Oharrean, Fondoak 2018ko abenduaren 31n duen *Inbertsio finantzarioen zorroa* xehatzen da.

Alderdi hau Fondoaren auditorian kontuan izan beharreko alderdi garrantzitsuenetako bat da, zorroaren balorazioak Ondare Garbiaren eguneroko kalkuluan izan dezakeen eta beraz, bere likidazio balioan izan dezakeen eraginagatik.

Fondoak, kudeaketako kontratu bat mantentzen du Kutxabank Gestión, Sociedad Gestora de Instituciones de Inversión Colectiva, S.A.U.-rekin kudeaketa sozietate gisa. Kudeaketa sozietateak, Fondoaren, instrumentu finantzarioen arrazoizko balioaren zehaztapenean erabilitako prozedura eta irizpideak ulertu ditugu, egokiak direla eta Fondoaren aktibo guztietarako modu sendoan aplikatzen direla adierazi ahal izateko.

Modu osagarrian, hainbat prozedura egin ditugu Fondoaren finantza-inbertsioen zorroaren gainean, era honako hauek azpimarra daitezke:

*Zorroko tituluen gordailuzainaren baieztapenaren lorpena*

Erakunde gordailuzainei eskaera bat egitea, Fondoaren zaintza, ikuskapen, kustodia eta administrazio funtzioen garapenean, 2018ko abenduaren 31n Fondoaren zorroan bildutako tituluak existitzen direla egiaztatzeke.

*Inbertsio zorroaren balorazioa*

Fondoaren finantza-inbertsioen zorroan abenduaren 31n arrazoizko balioan erregistratuta dauden aktiboaren balorazioaren egiaztatpena, Kudeaketa Sozietateak ekitaldian zehar egindako kalkulua berrituz eginez, azterketaren datan merkatuko balore fidagarriekin kontrastatuz.

Azaldutako prozeduren emaitzetatik, Fondoko zorroaren arrazoizko balioa zehazteko kudeaketa sozietateak erabilitako metodologiak egokiak dira eta gure prozeduren eta kudeaketa sozietatearen artean izandako edozein diferentzia arrazoizko tarte batean mantendu da erantsitako urteko kontuetan barneratutako zenbatekoekin.

---

### *Enfasi paragrafoa*

12. oharrean nabarmendutakoaren inguruan ohartarazten dugu, non 2018ko otsailaren 23an Baloreen Merkatuko Batzorde Nazionalaren, Fondoaren Kudeaketa Sozietatearen eta gordailuzainaren eskariari erantzunez, Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión-ek Kutxabank Monetario, Fondo de Inversión-en xurgapen bidezko bat-egitearen baimena adierazten den. Xurgapen bidezko bat-egite hau 2019ko ekitaldian zehar dute aurreikusia egitea Kudeaketa Sozietateko Administratzaileak. Gure iritzia ez da aldatu gai honen ondorioz.

---

### *Beste informazio batzuk: Kudeaketa-txostena*

Gainerako informazioa 2018ko ekitaldiko kudeaketa-txostenari dagokio soil-soilik, eta haren formulazioa Fondoaren Kudeaketa Sozietatearen administratzaileen erantzukizuna da, urteko kontuen parte ez delarik.

Urteko kontuei buruz eman dugun auditoria-iritziak ez du eraginik kudeaketa-txostenean. Kontu-auditoriaren araudi erregulatzailean eskatutakoarekin bat etorritz, kudeaketa-txostenaren gainean dugun erantzukizuna betetzeko, urteko kontuen kudeaketa-txostenaren egokitasuna ebaluatu behar dugu eta horri buruzko informazioa eman, kontu horien auditoria egitean fondoari buruz dakigunetik abiatuta, eta auditoria egitean ebidentzia gisa lortutakoaz bestelako informaziorik eman gabe. Horrez gain, kudeaketa-txostenaren edukia eta aurkezpena aplikatzekoa den araudiarekin bat datozen edo ez ebaluatzeko eta horri buruz informatzeko erantzukizuna bete behar dugu. Egin dugun lanean oinarrituta ondorioztatzen badugu akats materialak egin direla, horren berri eman beharko dugu nahitaez.

Egindako lanean oinarrituta, aurreko paragrafoan deskribatutakoaren arabera, kudeaketa-txostenean bildutako informazioa bat dator 2018ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotakoarekin, eta haren edukia eta aurkezpena bat datoz aplikatzekoa den araudiarekin.

---

### *Fondoaren Kudeaketa Sozietateko administratzaileen eta auditoria batzordearen erantzukizuna urteko kontuei dagokionez*

Fondoaren Kudeaketa Sozietateko administratzaileek urteko kontu erantsiak azaltzeko ardura dute, fondoaren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen benetako irudia adieraziz, fondoari Espainian aplikatu beharreko finantza-informazioko arauzko esparruarekin bat etorritz. Gainera, urteko kontuak iruzur edo errorearen ondoriozko akats materialik gabe prestatzeko beharrezkotzat jotzen duten barne-kontrolaz arduratuko dira.

Urteko kontuak prestatzean, Fondoaren Kudeaketa Sozietateko administratzaileek bere gain hartu behar dute Fondoak jarduneko enpresa gisa jarraitzeko duen ahalmena balioestea, kasuan-kasuan jarduneko enpresarekin zerikusia duten gaien berri emanez, eta jarduneko enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiliz, Fondoaren Kudeaketa Sozietateko administratzaileek likidatzeko eta jarduna bertan behera uzteko asmoa izan ezean edota beste alternatiba errealistik ezean.

Kudeaketa Sozietatearen auditoria batzordea, Fondoaren urteko kontuen elaborazio eta presentazio prozesuaren gainbegiratzearen arduraduna da.

---

### *Auditorearen erantzukizunak urteko kontuen auditoriari dagokionez*

Gure helburua da arrazoizko segurtasun batekin esan ahal izatea urteko kontuek, oro har, iruzur edo erroreen eraginez egindako akats materialik ez dutela, eta gure iritzia biltzen duen auditoria-txosten bat ematea.

Arrazoizko segurtasunak segurtasun-maila handia esan nahi du, baina horrek ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen kontu-auditoriaren jarduera arautzen duen araudiari jarraikiz akats material guzti-guztiak detektatzen dituela. Iruzur edo erroreen eraginez gerta daitezke akatsak, eta materializat jotzen dira baldin eta, banaka edo multzoka hartuta, arrazoizkoa bada aurreikustea urteko kontuetan oinarrituta erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan eragina izango dutela.

Espainian auditoria-jarduera erregulatzeko indarrean dagoen araudia bete behar duen auditoria den heinean, gure judizio profesionala eman dugu, eta gure jarrera eszeptizismo profesionalean oinarritu da auditoria osoan. Horrez gain:

- Iruzur edo erroreen eraginez urteko kontuetan akats materialak izateko arriskuak identifikatu eta balioetsi ditugu, arrisku horiei erantzuteko auditoria-prozedurak aplikatu ditugu eta gure iritzia oinarritzeko moduko auditoria-ebidentzia nahikoa eta egokia lortu dugu. Iruzuraren ondorioz akats material bat ez detektatzeko arriskua handiagoa da erroreen ondorioz gertatutako akats materialen kasuan baino, iruzurrak kolisioa, faltsutzea, nahitako ez-egiteak, nahitako adierazpen okerrak edo barne-kontrola saihestea ekar ditzakelako berekin.
- Auditoriarentzat garrantzitsua den barne-kontrolaren berri izan dugu zirkunstantzien arabera egokiak diren auditoria-prozedurak diseinatzeko helburuarekin, eta ez fondoaren kudeaketa sozietatearen barne-kontrolaren eraginkortasunaren gaineko iritzia emateko asmoarekin.
- Aplikaturako kontabilitate-politikak egokiak eta kontabilitate-estimazioak arrazoizkoak ote diren ebaluatu dugu, baita fondoaren kudeaketa sozietatearen administratzaileek emandako informazioa ere.
- Fondoaren kudeaketa sozietatearen administratzaileek jarduneko enpresaren kontabilitate-printzipioa erabiltzea egokia den edo ez ondorioztatu dugu, eta, lortutako auditoria-ebidentzian oinarrituta, zalantza materialik bazegoen edo ez ondorioztatu dugu, Fondoak jarduneko erakunde gisa jarraitzeko duen gaitasunaren inguruan zalantza esanguratsuak sorraraz ditzaketen gertaera edo baldintzei loturik. Eskatzen digutenez, zalantza materiala dagoela ondorioztatzen badugu, gure auditoria txostenean ohartarazi egin behar dugu urteko kontuetan jasotako informazioaz, edo, informazio hori ezagutaraztea egokia ez bada, iritzi aldatu bat eman behar dugu. Gure auditoria-txostenaren egunera arte lortutako auditoria-ebidentzian oinarritu dira gure ondorioak. Alabaina, litekeena da etorkizuneko gertaera edo baldintzen eraginez Fondoak jarduneko enpresa bat izateari uztea.
- Urteko kontuen aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatu dugu, jakitera emandako informazioa barne, eta urteko kontuek, azpiko transakzio eta gertaerak irudikatzean, benetako irudi bat ematen ote duten aditzera emanez.

Fondoaren Kudeaketa Sozietatearen administratzaileekin harremanetan jarri gara, besteak beste, honako hauen berri emateko: auditoriaren norainokoa eta auditoria egiteko planifikaturako unea, eta auditoriaren aurkikuntza esanguratsuak, bai eta, auditoria egiten ari ginenean, identifikaturako barne-kontrolaren edozein hutsune esanguratsu.

Fondoaren Kudeaketa Sozietatearen Auditoria Batzordeari helarazi diogu, halaber, aplikatzekoak diren etika-eskakizunak bete izanaren aitortpena, independentzia-eskakizunak barne, eta harekin harremanetan jarri gara, orobat, gure independentziarentzat mehatxagarri izan zitezkeen gaien eta, hala bazegokion, zegozkien babesen berri emateko.

Fondoaren Kudeaketa Sozietatearen administratzaileei jakinarazi dizkiogun arrisku adierazgarrien artean, aldi honetako urteko kontuen auditorian guretzat adierazgarrienak zein diren erabaki dugu, eta, horren ondorioz, horietan izan dira arrisku adierazgarrienak guretzat.

Gure auditoria-txostenean gai horiek guztiak deskribatu ditugu, non eta lege- edo arau-xedapenek gaia jendaurrean ezagutzera ematea debekatzen ez duten.

## *Legezko eta arauzko bestelako betekizunei buruzko txostena*

---

### *Txosten osagarria Fondoaren Kudeaketa Sozietateko Auditoria Batzordearentzat*

Txosten honetan adierazitako iritzia bat dator 2019ko apirilaren 15an Fondoaren Auditoria Batzordearentzat egin dugun txosten osagarrian adierazitakoarekin.

---

### *Kontratazioaren aldia*

2018ko apirilaren 23an Ohiko Batzar Nagusiak urtebeterako auditore izendatu gintuen, 2017ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiaz geroztik.

Aldez aurretik, Ohiko Batzar Nagusiak hasierako aldi baterako izendatu gintuen, eta kontu-auditorien lanetan aritu gara, etengabe, 1996ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiaz geroztik.

---

### *Emandako zerbitzuak*

Kontu-auditoriaz gain auditutako Fondoari eman dizkiogun zerbitzuak, erantsitako urteko kontuen memoriaren 11. oharrean jaso dira, zehatz-mehatz.

---

PricewaterhouseCoopers Auditores, S.L. (S0242)

(Jatorrizkoa espainieraz, José Antonio Simón Maestrok (15886) sinatua)

2019ko apirilaren 15a

## Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión

### 2018ko abenduaren 31ko Balantzea (eurotan adierazita)

<b>AKTIBOA</b>	<b>2018</b>	<b>2017 (*)</b>
<b>Aktibo ez-korrontea</b>	-	-
Ibilgetu ukiezina	-	-
Ibilgetu materiala	-	-
Erabilera propioko ondasun higiezinak	-	-
Altzariak eta tresnak	-	-
Aktiboak zerga geroratuarengatik	-	-
<b>Aktibo korrontea</b>	<b>273 880 214,39</b>	<b>374 931 915,41</b>
Zordunak	2 844,63	28 642,77
Inbertsio finantzarioen zorroa	264 806 621,89	369 945 163,84
Barneko zorroa	130 922 910,04	224 987 110,87
Zorraren balore adierazgarriak	130 922 910,04	194 980 780,60
Ondare-tresnak	-	-
Inbertsio kolektiboko erakundeak	-	-
Gordailuak kreditu-erakundeetan	-	30 006 330,27
Deribatuak	-	-
Bestelakoak	-	-
Kanpoko zorroa	134 962 452,19	145 161 312,81
Zorraren balore adierazgarriak	134 962 452,19	145 161 312,81
Ondare-tresnak	-	-
Inbertsio kolektiboko erakundeak	-	-
Gordailuak kreditu-erakundeetan	-	-
Deribatuak	-	-
Bestelakoak	-	-
Inbertsio-zorroaren interesak	(1 078 740,34)	(203 259,84)
Inbertsio berankorrek, zalantzak edo auzitan daudenak	-	-
Periodifikazioak	-	-
Diruzaintza	9 070 747,87	4 958 108,80
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>273 880 214,39</b>	<b>374 931 915,41</b>

Honekin batera doan Memorian deskribatutako 1etik 12ra bitarteko oharra 2018ko abenduaren 31ko balantzearen parte dira.

(\*) Konparazioa egiteko aurkezten da soil-soilik.

## Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión

### 2018ko abenduaren 31ko Balantzea (eurotan adierazita)

<b>ONDAREA ETA PASIBOA</b>	<b>2018</b>	<b>2017 (*)</b>
<b>Partaideei edo akziodunei esleitutako ondarea</b>	<b>273 797 886,40</b>	<b>374 826 410,42</b>
Partaideei edo akziodunei esleitutako funts ordaingarriak	273 797 886,40	374 826 410,42
Kapitala	-	-
Partaideak	232 285 153,93	333 109 005,61
Jaulkipen-prima	-	-
Erreserbak	140 144,03	140 144,03
(Akzio propioak)	-	-
Aurreko ekitaldietako emaitzak	43 164 562,04	43 164 562,04
Bazkideen beste ekarpen batzuk	-	-
Ekitaldiko emaitza	(1 791 973,60)	(1 587 301,26)
(Konturako dibidendua)	-	-
Doikuntzak erabilera propioko ibilgetu materialeko balore-aldaketengatik	-	-
Esleitutako beste ondarea	-	-
<b>Pasibo ez-korrontea</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
Epe luzerako hornidurak	-	-
Epe luzerako zergak	-	-
Pasiboak zerga geroratuarengatik	-	-
<b>Pasibo korrontea</b>	<b>82 327,99</b>	<b>105 504,99</b>
Epe laburrerako hornidurak	-	-
Epe laburrerako zorrak	-	-
Hartzekodunak	82 327,99	105 504,99
Pasibo finantzarioak	-	-
Deribatuak	-	-
Periodifikazioak	-	-
<b>ONDAREA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>273 880 214,39</b>	<b>374 931 915,41</b>
<b>OROIPEN-KONTUAK</b>	<b>2018</b>	<b>2017 (*)</b>
<b>Konpromiso-kontuak</b>	<b>-</b>	<b>-</b>
Konpromisoak deribatuen eragiketa luzeengatik	-	-
Konpromisoak deribatuen eragiketa laburrengatik	-	-
<b>Bestelako oroipen-kontuak</b>	<b>265 524 663,16</b>	<b>334 746 689,56</b>
IKEek maileguan lagatako baloreak	-	-
IKEek berme gisa emandako baloreak	-	-
IKEek berme gisa jasotako baloreak	-	-
Harpidetu gabeko eta zirkulazioan ez dagoen kapital nominala	-	-
Konpentsatu beharreko galera fiskalak	4 798 791,75	3 006 818,15
Bestelakoak	260 725 871,41	331 739 871,41
<b>BESTELAKO OROIPEN-KONTUAK, GUZTIRA</b>	<b>265 524 663,16</b>	<b>334 746 689,56</b>

Honekin batera doan Memorian deskribatutako 1etik 12ra bitarteko oharra 2018ko abenduaren 31ko balantzearen parte dira.

(\*) Konparazioa egiteko aurkezten da soil-soilik.



## Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión

### 2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Galdu-irabazien kontua (eurotan adierazita)

	<u>2018</u>	<u>2017 (*)</u>
Deskontu-komisioak harpidetzengatik eta/edo errenboltsoengatik	-	-
Inbertsio kolektiboko erakundeari ostera lagatako komisioak	-	-
Langileen gastuak	-	-
Beste ustiapen-gastu batzuk	<u>(959 420,69)</u>	<u>(1 232 550,59)</u>
Kudeaketa-komisioa	(630 605,00)	(809 999,80)
Gordailuzain-komisioa	(315 300,43)	(404 990,95)
Diru-sarrera/gastua Konpartimentu konpentsazioagatik	-	-
Bestelakoak	(13 515,26)	(17 559,84)
Ibilgetu materialaren amortizazioa	-	-
Horniduren soberakinak	-	-
Narriadura eta emaitzak ibilgetuaren besterentzeengatik	-	-
<b>Ustiapen-emaitza</b>	<b>(959 420,69)</b>	<b>(1 232 550,59)</b>
Diru-sarrera finantzarioak	6 140,12	104 793,29
Gastu finantzarioak	(351 162,58)	(177 399,79)
Arrazoizko balioaren aldakuntza tresna finantzarioetan	<u>(337 389,45)</u>	<u>73 277,70</u>
Barneko zorroaren eragiketengatik	(17 817,17)	36 600,61
Kanpoko zorroaren eragiketengatik	(274 370,76)	90 805,40
Deribatuekin egindako eragiketengatik	(45 201,52)	(54 128,31)
Bestelakoak	-	-
Kanbio-diferentziak	-	-
Narriadura eta emaitzak tresna finantzarioen besterentzeengatik	<u>(150 141,00)</u>	<u>(355 421,87)</u>
Narriadurak	-	-
Emaitzak barneko zorroaren eragiketengatik	(81 425,32)	(231 757,69)
Emaitzak kanpoko zorroaren eragiketengatik	(68 715,68)	(123 664,18)
Emaitzak deribatuekin egindako eragiketengatik	-	-
Bestelakoak	-	-
<b>Emaitza finantzarioa</b>	<b>(832 552,91)</b>	<b>(354 750,67)</b>
<b>Zerga aurreko emaitza</b>	<b>(1 791 973,60)</b>	<b>(1 587 301,26)</b>
Mozkinen gaineko zerga	-	-
<b>EKITALDIKO EMAITZA</b>	<b><u>(1 791 973,60)</u></b>	<b><u>(1 587 301,26)</u></b>

Honekin batera doan Memorian deskribatutako 1etik 12ra bitarteko oharrak 2018ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiko galdu-irabazien kontuaren parte dira.

(\*) Konparazioa egiteko aurkezten da soil-soilik.

## Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión

### 2018ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiko Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria (eurotan adierazita)

#### A) Aitortutako diru-sarrera eta gastuen egoera

Galdu-irabazien kontuaren emaitza	(1 791 973,60)
Partaide eta akziodunei esleitutako ondarean zuzenean egotzitako diru-sarrera eta gastuak, guztira	-
Transferentziak, guztira, galdu-irabazien kontura	-
<b>Aitortutako diru-sarrera eta gastuak, guztira</b>	<b>(1 791 973,60)</b>

#### B) Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, guztira

	Partaideak	Erreserbak	Aurreko ekitaldietako emaitzak	Ekitaldiko emaitza	(Konturako dibidendua)	Esleitutako beste ondarea	GUZTIRA
<b>2017ko abenduaren 31ko saldoak (*)</b>	<b>333 109 005,61</b>	<b>140 144,03</b>	<b>43 164 562,04</b>	<b>(1 587 301,26)</b>	-	-	<b>374 826 410,42</b>
Doikuntzak irizpide-aldaketengatik	-	-	-	-	-	-	-
Erroreengatik egindako doikuntzak	-	-	-	-	-	-	-
<b>Saldo doitua</b>	<b>333 109 005,61</b>	<b>140 144,03</b>	<b>43 164 562,04</b>	<b>(1 587 301,26)</b>	-	-	<b>374 826 410,42</b>
Aitortutako diru-sarrera eta gastuak, guztira	-	-	-	(1 791 973,60)	-	-	(1 791 973,60)
Ekitaldirako emaitzaren aplikazioa	(1 587 301,26)	-	-	1 587 301,26	-	-	0
Eragiketak partaideekin							
Harpidetzak	68 087 391,35	-	-	-	-	-	68 087 391,35
Errenboltsoak	(167 323 941,77)	-	-	-	-	-	(167 323 941,77)
Ondarearen bestelako aldakuntzak	-	-	-	-	-	-	-
<b>2018ko abenduaren 31ko saldoak</b>	<b>232 285 153,93</b>	<b>140 144,03</b>	<b>43 164 562,04</b>	<b>(1 791 973,60)</b>	-	-	<b>273 797 886,40</b>

Honekin batera doan Memorian deskribatutako 1etik 12ra bitarteko oharak 2018ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiko ondare garbiaren aldaketen egoera-orriaren parte dira.

(\*) Konparazioa egiteko aurkezten da soil-soilik.

## Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión

### 2017ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiko Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria (\*) (eurotan adierazita)

#### A) Aitortutako diru-sarrera eta gastuen egoera

Galdu-irabazien kontuaren emaitza	(1 587 301,26)
Partaide eta akziodunei esleitutako ondarean zuzenean egotzitako diru-sarrera eta gastuak, guztira	-
Transferentziak, guztira, galdu-irabazien kontura	-
<b>Aitortutako diru-sarrera eta gastuak, guztira</b>	<b>(1 587 301,26)</b>

#### B) Ondare garbiaren aldaketen egoera-orria, guztira

	Partaideak	Erreserbak	Aurreko ekitaldietako emaitzak	Ekitaldiko emaitza	(Konturako dibidendua)	Esleitutako beste ondarea	GUZTIRA
<b>2016ko abenduaren 31ko saldoak</b>	<b>361 609 137,93</b>	<b>140 144,03</b>	<b>43 164 562,04</b>	<b>(310 235,37)</b>	-	-	<b>404 603 608,63</b>
Doikuntzak irizpide-aldaketengatik	-	-	-	-	-	-	-
Erroreengatik egindako doikuntzak	-	-	-	-	-	-	-
<b>Saldo doitua</b>	<b>361 609 137,93</b>	<b>140 144,03</b>	<b>43 164 562,04</b>	<b>(310 235,37)</b>	-	-	<b>404 603 608,63</b>
Aitortutako diru-sarrera eta gastuak, guztira	-	-	-	(1 587 301,26)	-	-	(1 587 301,26)
Ekitaldirako emaitzaren aplikazioa	(310 235,37)	-	-	310 235,37	-	-	-
Eragiketak partaideekin							
Harpidetzak	141 843 265,53	-	-	-	-	-	141 843 265,53
Errenboltsoak	(170 033 162,48)	-	-	-	-	-	(170 033 162,48)
Ondarearen bestelako aldakuntzak	-	-	-	-	-	-	-
<b>2017ko abenduaren 31ko saldoak</b>	<b>333 109 005,61</b>	<b>140 144,03</b>	<b>43 164 562,04</b>	<b>(1 587 301,26)</b>	-	-	<b>374 826 410,42</b>

Honekin batera doan Memorian deskribatutako 1etik 12ra bitarteko oharak 2018ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiko ondare garbiaren aldaketen egoera-orriaren parte dira.

(\*) Konparazioa egiteko aurkezten da soil-soilik.

## **Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión**

### **2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)**

---

#### **1. Jarduera eta arrisku-kudeaketa**

##### a) Jarduera

Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión, aurrerantzean Funtsa, Gasteizen eratu zen 1996ko ekainaren 17an, Fonalava, Fondo de Inversión sozietate-izenarekin; gero, 2013ko ekainaren 21ean izena aldatu zitzaion orain duena jartzeko. Egoitza soziala Bilbon (Bizkaian) du, Euskadi Plazako 5. zk.an, 27. solairuan.

Funtsa Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren (CNMV) Inbertsio Funtzen Erregistroan inskribatuta dago 1996ko uztailaren 10etik, 667 zenbakiarekin, eta ordutik Fondo de Inversión (F.I.) kontsiderazioa du legearen ondorioetarako.

35/2003 Legearen 1. artikuluen, eta ondorengo aldaketen, arabera, Inbertsio Kolektiboko Erakundeen xede soziala da publikoaren funts, ondasun edo eskubideak atzematea ondasun, eskubide, balora edo bestelako tresnetan, finantzarioak izan ala ez, kudeatzeko edo inbertitzeko, betiere inbertizailearen errendimendua emaitza kolektiboen arabera ezartzen bada.

Funtsari eskaintzen zaion jarduera dela eta, ez dauka ingurumeneko erantzukizunik, gasturi, hornidurarik edo kontingentziarik, hau da, ondarearekiko, egoera finantzarioarekiko eta ondarearen emaitzarekiko esanguratsuak izan daitezkeenak. Horregatik, ez dago ingurumen-alderdiei buruzko informazioaren banakapen espezifikorik urteko kontuen memorian.

Funtsaren inbertsio-politika Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalean dagokion erregistroan erregistratuta eta publikoaren eskura dagoen liburuxkan dago zehaztuta.

CNMVren Erregistroen arabera, Funtsaren kudeaketa eta administrazioa Kutxabank Gestión, S.G.I.I.C., S.A.U.ri, Kutxabank Taldeko sozietateari, esleituta dago.

## **Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión**

### **2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)**

---

Inbertsio kolektiboko erakundeen 35/2003 Legeak, azaroaren 4koak, 68. artikuluan gordailuzaina bereizteari buruz ezarritako baldintzak betez, Kutxabank Gestión, S.G.I.I.C., S.A.U.k Sozietate Kudeatzaile gisa eta Kutxabank, S.A.k Entitate Gordailuzain gisa, prozedura espezifikoko batzuk mantentzen dituzte, bien arteko interes-gatazkak saihesteko xedearekin.

Entitate Gordailuzain horrek Funtsa zaindu, gainbegiratu eta administratzeko zenbait funtzioa garatu behar ditu, gaur egun indarrean dagoen araudiak ezarritakoaren arabera. Funtzio nagusiak hauek dira:

1. Egindako eragiketak merkatu-erregimenean egin direla egiaztatzea.
2. Egindako eragiketek errespetatu dituztela indarrean dagoen araudiak ezarritako inbertsio-koefizienteak eta irizpideak.
3. Gainbegiratzea sozietate kudeatzaileak erabilitako irizpide, formula eta prozedurak Funttsaren partaidetzen likidazio-balioa kalkulatzeko.
4. Egiaztatzea Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalera igorri baino lehen Funttsaren aldizkako informazio publikoaren zehaztasuna, kalitatea eta nahikotasuna.
5. Egiaztatzea Funttsaren sozietate kudeatzaileak ezarritako merkataritza-prozedurek aplikatu beharreko araudia betetzen dutela.
6. Zaintzea Funttsaren ondarea osatzen duten altzari eta gainerako aktibo finantzarioen balore guztiak, hala zuzenean nola erakunde parte-hartzailearen bidez, kasu guztietan kontserbatuz funtzio hori egitetik eratorriko erantzukizuna.
7. Egiaztatzea baloreen eta eskudiruaren likidazioak dagozkien merkatuan ezartzen dituzten likidazio-arauek zehazten dituzten epean jasotzen direla.
8. Ziurtatzea harpidetzek eta errenboltoek betetzen dituztela Funttsaren Liburuxkan ezarritako prozedurak, baita indarrean dagoen legerian ezarritakoak ere.

## **Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión**

### **2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)**

---

Inbertsio Funtsei buruzko lege-araudi espezifikoari lotuta dago Funtsa. Araudi hori jasotzen da nagusiki 1082/2012 Errege Dekretuan, uztailearen 13koan, Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea —gero beste aldaketa batzuk izandakoa— garatzeko erregelamendua onartzen duenean. Honako hauek dira Funtzari aplikatzekoa den araudi horren alderdi nagusiak:

- Gutxienerako ondarea 3.000.000 eurokoa izango da.
- Funtzaren partaideen kopurua ez da 100dik beherakoa.

Merkatuko baldintzengatik edo indarrean dagoen araudia bete behar izateagatik, funts baten ondarea edo partaideen kopurua, edo bere konpartimentuen kopurua 1082/2012 Errege Dekretuan ezarritako gutxieneratik beherakoak badira, erakunde horiek urte bateko epea izango dute, eta epe horretan halakoak bailiran jardun ahal izango dute.

- Funtseko balore higigarriak eta gainerako aktibo finantzarioak ezin dira pignoratu, ez eta inolako garantia gisa eratu ere, salbu Funtzak bigarren mailako deribatuen merkatu ofizialetan egiten dituen eragiketetan garantia gisa balio izateko, gehienez ere tresna horien balorazioan izandako aldaketen ondorioz sortutako galdu-irabazien eguneroko likidazioaren zenbatekoan, baldin eta 5/2005 Errege Lege Dekretuak (martxoaren 11koak, produktibitatea sustatzeko eta kontratazio publikoa hobetzeko larrialdiko berrikuntzei buruzkoak) araututako kontratu-kontentsazioko eta garantia finantzarioko akordioen babesak badute; eta funtzio horretarako legez gaituta dauden Erakundeen zainzapean egon beharko dute.
- Obligazioen gehieneko ehuneko batzuk ezarri dira hirugarrenen eta inbertsio-kontzentrazioen aldean.
- Likidezia-koefiziente minimo bat bete behar du Funtzak, ondarearen hileko batez bestekoaren %1ekoa. Koefiziente hori gauzatu beharko du eskudirutan, Gordailuzainaren gordailuetan edo ageriko kontuetan, edo beste kreditu-entitate batenetan Gordailuzainak izaera hori ez badu, edo Zor Publikoko baloreen egun batera berrerosketa akordiopeko salerosketetan.

## Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión

### 2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)

---

- Funtsa merkatu-arriskuagatik eratorritako tresnei dagokienez muga batzuen mende dago, baita kontrako alderdiaren arriskuagatik muga batzuen mende ere.

Metaketa-funtsa denez, eta Funtsa Kudeatzeko Erregelamenduaren arabera, ekitaldiko emaitza, Sozietateen gaineko zerga kontsideratu ondoren, Funtsaren ondarean geratuko da.

Funtsa Kudeatzeko Erregelamenduaren arabera, Sozietate Kudeatzaileak urtean komizio bat kobratuko du kudeaketa-gastuengatik, Funtsaren ondarearen %2,25etik gorakoa izango ez dena. 2018 eta 2017ko ekitaldietan, kudeaketa-komizioa sei hilabetetik behin kalkulatu da Euribor 12 hilekoaren erreferentziaz, %0,05 gehituta, eta erreferentzia gisa hartuz aurreko ekitaldiko abenduaren azken eguneko Euribor 12 hilekoa eta ekitaldiko ekainaren azken eguneko. Gutxienezko kudeaketa-komizioa %0,20koa izan da, eta gehienekoa %0,70ekoa.

Era berean, Funtsa Kudeatzeko Erregelamenduak Entitate Gordailuzainaren ordainsaria ere ezartzen du, zaindutako ondarearen %0,20tik gorakoa izango ez dena urtean. 2018 eta 2017ko ekitaldietan, gordailuzainaren komizioa %0,10ekoa izan da.

2018 eta 2017ko abenduaren 31n, Sozietate Kudeatzaileak ez die komisorik aplikatzen Funtseko partaideei harpidetutako partaidetzen zenbatekoaren gainean eta ezta errenboltsatutako partaidetzen zenbatekoaren gainean ere.

#### b) Arriskuaren kudeaketa

Funtsaren inbertsio-politika, baita lotutako arrisku nagusien deskribapena ere, CNMVren erregistratuta eta publikoaren eskura dagoen liburuxkan daude zehaztuta.

## **Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión**

### **2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)**

---

Funtsaren merkatu finantzarioetako eragiketei dagokienez, arrisku nagusiak hauek dira:

- **Merkatu-arriskua:** Funtsak jarduten duen aktibo finantzarioen merkatuko prezioetan mugimendu kaltegarriengatik izan daitezkeen galerak adierazten ditu. Arrisku horien artean, esanguratsuenak Funtsak zorroan dituen tituluen interes-tasak, kanbio motak eta kotizazioak dira.
- **Kreditu-arriskua:** Funtsa dela eta, kontrako alderdiak dituen betebeharrak finantzarioak betetzeko gaitasunaren edo asmoaren aldaketengatik izan daitezkeen arriskuak dira.
- **Likidezia-arriskua:** hau gertatzen da Funtsak ezin dienean arreta eman bere partaideen errenbultso-eskaerei, zorroko aktiboak merkatuan egiteko unean zailtasunak izateagatik.
- **Eragiketa-arriskua:** galerak eragin ditzakeena gizakiaren errorearen, barne-prozesu desegoki edo akastunen, sistemen hutsegiteen edo kanpoko gertaeren ondorioz.

Sozietate Kudeatzaileak behar diren mekanismoak ditu ezarrita merkatu, kreditu eta likideziazko arriskuarekiko esposizioa kontrolatzeko, baita eragiketa-arriskuarekiko esposizioa ere. Alde horretatik, lehen 1.a) apartatuan aipatutako legeak ezarritako koefizienteen kontrolak mugatzen du arrisku horiekiko esposizioa.

## **2. Urteko kontuak aurkezteko oinarriak**

### **a) Irudi fidela**

Urteko kontuak Funtsaren Sozietate Kudeatzaileko Administrazioak formulatu dituzte, Funtseko kontabilitateko erregistroetatik abiatuta, kontabilitate-gaietan indarrean dauden eta aplikatzekoak diren lege-xedapenak aplikatuta, Funtsak 2018ko abenduaren 31n zuen ondarearen eta egoera finantzarioaren, eta egun horretan amaitutako ekitaldian zehar egindako eragiketen emaitzen irudi fidela eta benetakoa erakusteko xedearekin.

Erantsitako urteko kontuak Sozietate Kudeatzailearen Administrazio Kontseiluak onartu behar ditu, baldin eta Administrazioak uste badute onar daitezkeela aldaketa esanguratsurik gabe.



## **Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión**

### **2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)**

---

b) Kontabilitate-printzipioak

Urteko kontu hauek egiteko, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren 3/2008 Zirkularrean eta ondorengo aldaketetan, funtsean, jasotako kontabilitateko eta sailkatzeko printzipio eta irizpideak jarraitu dira. Printzipio esanguratsuenak 3. oharrean deskribatu dira. Ez dago obligaziozko kontabilitate-printzipiorik, urteko kontu hauetan ondorio esanguratsua izan dezakeenik, eta aplikatu gabe utzi denik.

Ondarearen emaitzak eta zehaztapena Funtsaren Sozietate Kudeatzailearen Administratzaileek urteko kontuak egiteko jarraitutako kontabilitate-printzipio eta -politika, balorazio- eta zenbatespen-irizpideekiko sentsibleak dira.

c) Konparagarritasuna

2018ko abenduaren 31ko urteko kontuak indarrean dagoen CNMVren araudian ezarritako egitura eta printzipio kontableei jarraituz aurkezten dira.

Sozietate Kudeatzaileko Administratzaileek, konparazioa egin ahal izateko, balantzeko, galdu-irabazien kontuko eta ondare garbiaren aldaketen egoera-orriko partida bakoitzarekin batera, 2018ko ekitaldiko zifrez gain, aurreko ekitaldiari dagozkionak ere aurkezten dituzte.

Ez da izan 2018 eta 2017ko ekitaldietako urteko kontuen konparazioan eragin esanguratsurik izan dezakeen aldaketa kontablerik.

d) Partidak elkartzea

Ondare garbiko balantzearen, galdu-irabazien kontuko eta egoera-orriaren partida batzuk taldekatuta daude errazago ulertzeko, nahiz eta kasu batzuetan, memoriaren oharretan informazio bereizia txertatu den.

## **Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión**

### **2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)**

---

#### e) Kontabilitate-zenbatespenak eta akatsak zuzentzea

Batzuetan, Sozietate Kudeatzailearen Administrazioaileek zenbatespenak egin dituzte urteko kontuetan erregistratuta agertzen diren zenbait aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu eta konpromisoen balorazioa lortzeko. Zenbatespen horiek, batik bat, aktibo finantzario batzuen narriaduragatik arrazoizko balio eta balizko galerei buruzkoak dira, halakorik balego. Horiek balizko zenbatespen onenentzat jotzen direnean ere, kalkulatzeko unean dagoen informazioan oinarrituta, etorkizuneko gertaerek behartu dezakete horiek prospektiboki aldatzera, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Nolanahi ere, Funtzaren likidazio-balioari merkatuko prezioen fluktuazioek eta inbertsio finantzarioei lotutako beste arrisku batzuek eragin diezaiokete.

Ez dago aldaketarik kontabilitate-estimazioetan, eta ez dago aurreko ekitaldietan egin eta 2018 eta 2017ko ekitaldietan detektatu den errorerik ere.

Urteko kontu hauek, balantzea, galdu-irabazien kontua, ondare garbiaren egoera-orria eta memoria hau osatzen dituzten dokumentuetako zifrak, eurotan daude, berariaz adierazten ez denean izan ezik.

### **3. Kontabilitate-printzipio eta balorazio-arau esanguratsuenen laburpena**

Urteko kontu hauen formulazioan aplikatutako kontabilitate-printzipio esanguratsuenak hauek izan dira:

#### a) Enpresa-printzipioa funtzionamenduan

Urteko kontuak egitean, kontuan izan da Funtzaren kudeaketak jarraitu egingo duela aurreikus daitekeen etorkizunean. Beraz kontabilitate-arauen aplikazio ez dago bideratuta ondare-balioa zehaztera bere transmisio global edo partzialaren ondorioetarako, ezta likidatzen bada lortzen den zenbatekoa zehaztera ere.

## Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión

### 2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)

---

#### b) Sortzapen printzipioa

Diru-sarrerak eta gastuak kontabilitateari dagokionez sortzen diren aldiaren arabera, kontuan izan gabe kobrantza edo eskudirutan egindako ordainketa noiz egin den.

##### *i. Diru-sarrera interes eta dibidenduengatik*

Erosteke unearen ondoren sortutako aktibo finantzarioen interesak, halakorik balego, kontabilitatean jasotzen dira bere sortzapen-aldiaren arabera, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatzeagatik, kobrantzaren unean erregistratzen diren inbertsio berankor, zalantzazko edo auzitan daudenei dagozkien interesak izan ezik. Aktibo finantzarioen zorrotik datozen interesen periodifikatzea balantzeko aktiboko epigrafe honetan erregistratzen da: "Inbertsio finantzarioen zorroa – Inbertsio Zorroaren Interesak". Kontu horren kontrapartida galdu-irabazien kontuko "Sarrera finantzarioak" epigrafean erregistratzen da.

Beste sozietate batzuetako dibidenduak jasotzen direnean, sarrera gisa kontabilizatzen dira, galdu-irabazien kontuko "Sarrera finantzarioak" epigrafean, Funtsak dibidendu horiek kobratzeko eskubidea sortzen den unean.

##### *ii. Komisioak edo pareko kontzeptuak*

Zuzenean edo zeharka, lehen jasandako ostera lagatako komisioen ondorioz, Funtsak jasotzen dituen diru-sarrerak, halakorik bada, galdu-irabazien kontuko epigrafe honetan erregistratu dira: "IKEei ostera lagatako komisioak"

Kudeaketa-komisioak, gordailu-komisioak zein Funtsaren bilakaerarako beharrezkoak diren bestelako kudeaketa-gastuak, galdu-irabazien kontuko "Ustiapeneko bestelako gastuak" epigrafean erregistratzen dira, bakoitzaren izaera kontuan hartuta.

##### *iii. Arrazoizko balioaren aldakuntza tresna finantzarioetan*

Aktibo eta pasibo finantzarioen arrazoizko balioaren aldakuntzetatik eratorritako etekina edo galdera, eginda edo egin gabe, Funtsaren galdu-irabazien kontuko "Narriadura eta emaitzak tresna finantzarioen besterentzeengatik" eta "Arrazoizko balioaren aldakuntza tresna finantzarioetan" epigrafeetan erregistratzen da dagokionaren arabera.

## Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión

### 2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)

---

#### *iv. Diru-sarrera eta gastu ez-finantzarioak*

Sortzapen-irizpidearen arabera kontabilizatzen dira.

Diru-sarrerak eta gastuak kontabilitateari dagokionez sortzen diren aldiaren arabera, kontuan izan gabe kobrantza edo eskudirutan egindako ordainketa noiz egin den.

#### c) Zordunak

Hasierako balorazioa bere arrazoizko baloarengatik egiten da, kontrako ebidentziarik ez bada behintzat, transakzioaren prezioa dena eta hori da entregatutako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren parekoa da gehi zuzenean egotz dakizkion transakzio-kostuak.

Ondorengo balorazioa bere kostua amortizatuari egiten zaio. Sortutako interesak galdu-irabazien kontuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta. Halere, urte batetik epean jasotzea espero diren zenbatekoak dituzten partidak balio nominalaren arabera baloratzen dira.

Kobratzeko partiden balioaren narriaduragatik sortutako galerak kalkulatzeko, etorkizuneko diru-fluxu estimatuak hartzen dira kontuan, kontabilizatzeko unean kalkulaturako interes-tasa efektiboan deskontatuta. Narriaduragatik balorazio-zuzenketak, baita horien berrikuspena ere, gastu edo diru-sarrera gisa jaso dira galdu-irabazien kontuan.

#### d) Inbertsio finantzarioen zorroa

Inbertsio finantzarioen zorroaren aktiboak galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten arrazoizko balioan kontabilizatutako aktibo finantzariotzat jo dira. Zorroan jasotako produktu finantzario nagusiak, baita beren arrazoizko balioaren zehaztapena ere, jarraian deskribatu dira:

- Zorraren balore adierazgarriak: jaulkitzailearentzat zor bat diren eta kontratu bidez ezarritako interes batean oinarritzen den ordainsari bat sortzen duten baloreak.

Kotizatutako zorraren balore adierazgarrien arrazoizko balioa merkatu batean kotizazio-prezioek zehazten dute, betiere hori aktiboa bada eta prezioak era irmoan lortzen badira. Arrazoizko balioa kotizatzeko prezioak eskura ez daudenean, transakzio-prezio berrienarekin bat egiten da, betiere ez bada izan aldaketa esanguratsurik baldintza ekonomikoetan transakzio unetik.

## Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión

### 2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)

---

Zerga-tresnarentzat merkatu aktiborik ez dagoen kasuan balorazio-teknikak aplikatzen dira: bitartekaritza, jaulkitzaile edo informazio-zabaltzaile bidez hornitutako prezioak, eskura badaude alderdi interesdunen eta behar bezala informatutakoen arteko elkarrikotasun-independentziaren baldintzetan egindako merkatu-transakzio berriak erabiltzea, arrazoizko balioa funtsean berdina den beste tresna baten gaur egungo unean eta aukeren balorazioa, kasua balitz.

Zergaren balio adierazgarrien kobratu gabeko interes sortuak interes-tasa efektiboaren arabera periodifikatzen dira eta ekitaldiko emaitzaren parte dira.

- Ondare-tresnak: beste erakunde batzuek jaulkitako tresna finantzarioak, esaterako, akzio eta kuota partaidetuak, baldin eta jaulkitzailearentzat kapital-tresnen izaera badute.

Ondare kotizatuen tresnen arrazoizko balioa balantze-dataren egunaren itxierako kanbio ofizialak ezartzen du, edo egun horren aurreko egun baliodunak edo ponderatutako batezbesteko kanbioak itxierako prezio ofizialik ez balego.

- Kreditu-erakundeetako gordailuak: Funtsak kreditu-erakundeetan mantentzen dituen gordailuak, salbu "Diruzaintza" epigrafean jasotzen diren saldoak.

Arrazoizko balioetat jotzen da inbertsioaren barne-errendimendua une bakoitzean indarrean dauden merkatuko interes-tasekin parekatzen duen prezioa.

- Inbertsio kolektiboko beste erakunde batzuen akzioak edo partaidetzak: beren arrazoizko balioa erreferentziako egunaren likidazio-balioaren edo kotizazio-balioaren arabera ezartzen da. Erreferentzia-egunerako ez bada likidazio-balio bat kalkulatu, eskura dagoen azken likidazio-balioa erabiltzen da. Inbertsio Libreko Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan, Inbertsio Libreko Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan eta atzerriko antzerako Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan egindako inbertsioak direnean, likidazio-balio estimatuak erabiltzen dira.
- Deribatuak: besteak este, barnean hartzen ditu balio-diferentziak geroko eta forward-en kontratuetan, warrants-engatik ordaindu/kobratutako primak eta ordaindu/jaulkitako opzioak, truke-kontratuei lotutako kobrantzak edo ordainketak, baita produktu egituratuetako inbertsioak ere.

Erreferentzia-eguneko itxierako kanbio-balio ofizialak bere arrazoizko balioaz zehazten du. Merkatu antolatuetako negoziatu gabeentzat, Sozietate Kudeatzaileak balorazio-eredu bat ezartzen du CNMVren abenduaren 21eko

## **Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión**

### **2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)**

---

6/2010 Zirkularrean eta ondoren aldaketetan ezarritako baldintza espezifikoaren arabera.

Inbertsioaren narriadura nabarmen eta berreskuraezin bat duten aktiboei baja emango zaie galdu-irabazien kontura.

Aktibo eta pasibo finantzarioei balantzean baja ematen zaie, haien jabetzari lotutako arrisku eta onura guztiak funtsean transferitzen direnean.

#### e) Aktiboak behin-behinean eskuratu eta lagatzea

Aktiboen behin-behineko eskuratzeak edo osterako hitzarmena duten eskuratzeak despoltsatutako zenbateko efektiboaren arabera kontabilizatzen dira, edozein izanda ere azpiko tresnak, dagokion aktiboaren kontuan.

Zenbateko honen eta osterako prezioaren arteko diferentzia diru-sarrera gisa esleitzen da galdu-irabazien kontuan, interes-tasa efektiboaren metodoa erabilita.

Arrazoizko balioaren diferentziak galdu-irabazien kontuan inputatzen dira, "Arrazoizko balioaren aldakuntza tresna finantzarioetan" epigrafean.

Aldi baterako eskuratutako aktiboaren lagapen irmoa erregistratu da emaitza-kontuaren bidez arrazoizko balioan kontabilizatutako pasibo finantzario gisa.

#### f) Ondare-tresnak

Kotizatutako ondare-tresnak beren kontratazio-unean erregistratzen dira entregatutako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren arabera, eragiketari zuzenean esleitu dakizkiokeen transakzio esplizituaren kostuak barne.

## Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión

### 2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)

---

Aktibo hauen arrazoizko balioko aldaketen ondorio gisa sortzen diren diferentziak galdu-irabazien kontuan adierazten dira honela: diferentzia negatiboak edo diferentzia positiboak epigrafe honetan "Narriadura eta emaitzak tresna finantzarioen besterentzeengatik" edo "Finantza-tresnen arrazoizko balioreen aldakuntza barneko edo kanpoko zorroko eragiketengatik" epigrafean erregistratzen dira, likidatu diren edo ez diren aldaketen arabera, eta kontrapartida gisa erabiltzen da balantze-aktiboaren barneko edo kanpoko zorroaren "Ondare-tresnak" kontua.

#### g) Zorraren balore adierazgarriak

Zergaren balore adierazgarriak likidazio-unean erregistratzen dira entregatutako kontraprestazioaren arrazoizko baliorearen arabera, eragiketari zuzenean esleitu dakizkiokeen transakzio esplizituaren kostuak barne.

Aktibo hauen arrazoizko balioko aldaketen ondorio gisa sortzen diren diferentziak galdu-irabazien kontuan adierazten dira honela: diferentzia negatiboak edo diferentzia positiboak epigrafe honetan "Narriadura eta emaitzak tresna finantzarioen besterentzeengatik" edo "Finantza-tresnen arrazoizko balioreen aldakuntza barneko edo kanpoko zorroko eragiketengatik" epigrafean erregistratzen dira, likidatu diren edo ez diren aktiboaren arabera, eta kontrapartida gisa erabiltzen da balantze-aktiboaren barneko edo kanpoko zorroaren "Ondare-tresnak" kontua.

#### h) Deribatuen eragiketak, truke finantzarioak izan ezik

Deribatuen eragiketak kontratatzen diren unean erregistratzen dira, eta posizioa itxi arte edo kontratuaren muga-egunera arte edukitzen dira, oroipen-kontuetan dagokien epigrafean, konprometitutako zenbateko nominallean.

Garantia gisa gordailututako funtsak, lagatako gordailutzat hartzen dira kontabilitatean eta balantzeko aktiboan erregistratzen dira, "Zordunak" epigrafean dagokien kapituluan. Era berean, garantia gisa hartutako funtsak, hartutako gordailu kontsideratzen dira kontabilitatean eta "Epe laburreko zorrak" epigrafean erregistratzen dira balantzeko pasiboan; hartutako kontraprestazioa, berriz, balantzeko aktiboan erregistratzen da, izaeraren arabera dagokion kapituluan.

Erositako edo jaulkitako opzioetatik lortutako primak balantzearen aktibo edo pasiboaren "Deribatuak" epigrafean adierazten dira, eragiketaren gauzatze-datan.

## **Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión**

### **2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)**

---

Aktibo hauen arrazoizko balioko aldaketen ondorio gisa sortzen diren diferentziak galdu-irabazien kontuan adierazten dira honela: diferentzia negatiboak edo diferentzia positiboak epigrafe honetan "Emitzak deribatuekin egindako eragiketengatik" edo "Finantza-tresnen arrazoizko baliorearen aldakuntza deribatuekin egindako eragiketengatik" epigrafean erregistratzen dira, likidatu diren edo ez diren aktiboen arabera, eta kontrapartida gisa erabiltzen da balantze-aktiboaren barneko edo kanpoko zorroaren "Ondare-tresnak" kontua.

i) Partaidetzen likidazio-balioa

Funtsaren ondarea zehaztuko da funtsa osatzen duten partaidetzei dagozkien likidazio-balioa kalkulatzeko ondorioetarako, CNMVren azaroaren 6ko 6/2008 Zirkularrean eta ondorengo aldaketetan ezarritako irizpideekin bat.

j) Harpidetzak eta errenboltoak

Partaidetzen harpidetzak eta errenboltoak, benetan harpidetutako edo errenboltsatutako zenbatekoan kontabilizatzen dira, Funtsaren balantzearen pasiboko "Partaideak" kapituluan abonatuz edo kargatuz, hurrenez hurren.



## Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión

### 2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)

---

Funtsaren Kudeaketa Erregelamenduaren arabera, partaidetzen prezioa interesdunaren eskaera-egun berdineko likidazio-balioa izango da; horrela, harpidetutako edo ordaindutako partaidetzen kopurua nola, halakorik balitz, ordaindu beharreko eskudirua zehaztuko da. Partaidetzen prezioaren eskaeraren eta zehaztapenaren arteko batez besteko iraupenean zehar Funtsaren balantzeko pasiboan erregistratzen da, "Harpidetza-eskaerak, oraindik partaidetzak esleitu gabeak" kapituluan.

#### k) Mozkinen gaineko zerga

Galdu-irabazien kontuan jasotzen da etekinen gaineko zergaren gastua, bere kalkuluan jasotzen da, ondorengo alditarako den zerga aplikatu aurretik, zergaren zerga-oinarriaren eta kontabilitate-emaiztaren artean sortutako diferentzien geroratzearen efektua.

Geroratutako zergengatik pasiboak beti adierazten dira; aldiz, zerga geroratuengatik aktiboak soilik adierazten dira baldin eta probablea bada erakundeak aktibo hauek aplikatu ahal izateko etorkizuneko etekin fiskalak baditu.

Galera fiskalengatik ondorengo ekitaldietan konpentsatu beharreko eskubideak ez du aukera ematen inolako kasutan zerga geroratuagatik aktibo bat adierazteko eta soilik adierazten dira zergagatik gastua konpentsatuta, likidazio-balioaren kalkulu-maiztasunarekin. Konpentsa daitezkeen galera fiskalak "Oroipen-kontuak - Konpentsatu beharreko galera fiskalak" epigrafean erregistratzen dira.

#### l) Transakzioak atzerriko monetan

Funtsaren oinarritzko moneta euroa da. Ondorioz, euroaz bestelako monetan izendatutako saldo eta transakzio guztiak "atzerriko monetan" izendatukotzat jotzen dira.

Atzerriko monetan izendatutako transakzioak daudenean, eurora bihurtzen dira transakzio-eguneko eskurako kanbioaren interes-tasa erabilita. Eskurako kanbioaren interes-tasa izango da erreferentziako merkatuak egun horretan duen adierazgarriena edo, horrelakorik ez bada, data horren aurreko azken egun balioduneko.

## Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión

### 2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)

---

Atzerriko monetan izendatutako saldoak moneta funtzionalera bihurtzean sortzen diren kanbio-diferentziak erregistratu egiten dira, altxortegi, zordunketa eta kredituak diren monetan-partiden kasuan, beren zenbateko garbiarekin, galdu-irabazien "Kanbio-diferentziak" epigrafean. Finantza-tresnen zorroa osatzen duten gainerako diru-partidak eta diruzkoak ez diren partidak direnean, baloraziotik eratorritako galdu-irabaziekin batera eramaten dira kanbio-diferentziak.

#### m) Eperako baloreen salerosketa

Deribatuen eragiketak kontratatzen diren unean erregistratzen dira, eta posizioa itxi arte edo kontratuaren muga-egunera arte edukitzen dira, oroipen-kontuetan dagokien epigrafean, konprometitutako zenbateko nominalean.

Kontratu hauen arrazoizko balioko aldaketen ondorio gisa sortzen diren diferentziak galdu-irabazien kontuan adierazten dira honela: diferentzia negatiboak edo positiboak epigrafe honetan "Emitzak deribatuekin egindako eragiketengatik" edo "Finantza-tresnen arrazoizko baliorearen aldakuntza deribatuekin egindako eragiketengatik" epigrafean erregistratzen dira, likidatu diren edo ez diren aldaketen arabera, eta kontrapartida gisa erabiltzen da balantze-aktiboaren barneko edo kanpoko zorroaren "Ondare-tresnak" kontua.

#### 4. Zordunak

2018 eta 2017ko abenduaren 31n, honela banatzen da epigrafea:

	2018	2017
Administrazio Publikoak, hartzekodun	2 844,63	26 362,77
Likidatu gabeko eragiketak	-	2 280,00
	<b>2 844,63</b>	<b>28 642,77</b>

"Administrazio Publikoak, zordun" kapitulua honela banakatzen da 2018 eta 2017ko abenduaren 31n:

## Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión

### 2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)

	2018	2017
Mozkinen gaineko zerga, jasandako atxikipean eta beste kontzeptu batzuk konpentsatu ondoren	-	23 518,14
Jatorrian egindako atxikipean	<u>2 844,63</u>	<u>2 844,63</u>
	<b><u>2 844,63</u></b>	<b><u>26 362,77</u></b>

2017ko abenduaren 31n, "Mozkinen gaineko zerga, jasandako atxikipean eta beste kontzeptu batzuk konpentsatu ondoren" kapituluan jasotzen da Administrazio Publikoetatik 2017ko ekitaldiko etekinen gaineko Zergarengatik kobratzeko dagoen saldoa, 23.518,14 eurokoa, ekitaldi horretan sortutako zerga konpentsatu ondoren inbertsio finantzarioen zorroko interesen gainean eta kapital higigarriaren beste etekin batzuen gainean Funtsari egindako atxikipeanekin.

"Zordunak – Likidatu gabeko eragiketak" kapituluan 2017ko abenduaren 31n jasota daude kobratu gabe dauden Errenta Finko Nazionaleko atxikipean, 2.844,63 euroko baliokoak.

#### 5. Hartzekodunak

2018 eta 2017ko abenduaren 31n, honela banatzen da epigrafea:

	2018	2017
Bestelakoak	<u>82 327,99</u>	<u>105 504,99</u>
	<b><u>82 327,99</u></b>	<b><u>105 504,99</u></b>

"Hartzekodunak – Bestelakoak" kapituluan jasotzen da, batez ere, ekitaldi bakoitzaren itxieran, ordaintzeko zeuden kudeaketa- eta gordailuzain-komisioen zenbatekoa.

2018 eta 2017ko ekitaldietan zehar, Funtsak ez du egin legeak ezarritakoa baino geroratze handiagoa metatuta zuen ordaintzetarik. Era berean, 2018 eta 2017ko ekitaldien itxieran Funtsak ez dauka legeak ezarritako epea baino geroratze luzeagoa metatuta duen ordaintzeko saldirik.

#### 6. Inbertsio finantzarioen zorroa

Jarraian azaltzen da xehetasunez 2018 eta 2017ko abenduaren 31n Funtsaren balore-zorroak zuen osaera, aktibo-moten arabera banatuta:

	2018	2017
<b>Barneko zorroa</b>	<b><u>130 922 910,04</u></b>	<b><u>224 987 110,87</u></b>
Zorraren balore adierazgarriak	<u>130 922 910,04</u>	<u>194 980 780,60</u>

## Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión

### 2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)

	2018	2017
Gordailuak kreditu-erakundeetan	-	30 006 330,27
<b>Kanpoko zorroa</b>	<b>134 962 452,19</b>	<b>145 161 312,81</b>
Zorraren balore adierazgarriak	134 962 452,19	145 161 312,81
<b>Inbertsio-zorroaren interesak</b>	<b>(1 078 740,34)</b>	<b>(203 259,84)</b>
	<b>264 806 621,89</b>	<b>369 945 163,84</b>

Memoria honi erantsitako eta beronen zati diren I. eta II. Eranskinetan xehetasunez azaltzen da Funtsaren inbertsio finantzarioen zorroa 2018 eta 2017ko abenduaren 31n, hurrenez hurren.

2018 eta 2017ko abenduaren 31n, inbertsio finantzarioen zorroan jasotako titulu guztiak Kutxabank, S.A.n gordailututa (edo gordailutzeko izapidetan) daude.

Bestalde, oroipen-kontuetako "Bestelako oroipen-kontuak – Bestelakoak" epigrafeko saldoan, Funtsaren Entitate Gordailuzainak zaintzan dauzkan tituluen balio nominala jasotzen da, informazio moduan (ikus 9. oharra)

## 7. Diruzaintza

Jarraian azaltzen dira epigrafe honen xehetasunak 2018 eta 2017ko ekitaldien amaieran:

	2018	2017
Gordailuzaineko kontuak	9 067 006,63	4 958 108,80
Altxortegiko bestelako kontuak	3 741,24	-
	<b>9 070 747,87</b>	<b>4 958 108,80</b>

2018 eta 2017ko abenduaren 31n, Gordailuzaineko kontuek emandako interes-tasa %0koa izan da bi ekitaldietan.

2018ko abenduaren 31n, kontu korrante bat dauka Funtsak Cajasur Banco, S.A.n, 3.741,24 euroko zenbatekoarekin.

## 8. Partaideei esleitutako ondarea

Funtsaren ondarea osatzen duten partaidetzak ezaugarri berdinekoak dira, balio nominalik ez duten baina jabeari ondare horren gaineko jabetza-eskubidea ematen dioten zurtagiri izendunen bidez adieraziak.

## Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión

### 2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Urteko kontuen memoria (eurotan adierazita)

---

Honela kalkulatu da partaidetza bakoitzak 2018 eta 2017ko abenduaren 31n zuen likidazio-balioa:

	2018	2017
Partaideei esleitutako ondarea	<u>273 797 886,40</u>	<u>374 826 410,42</u>
Jaulkitako partaidetzen kopurua	<u>28 543 468,10</u>	<u>38 858 357,96</u>
Likidazio-balioa partaidetzen arabera	<u>9,59</u>	<u>9,65</u>
Partaide-kopurua	<u>8 178</u>	<u>13 329</u>

Partaideei egotzitako ondareak 2018 eta 2017ko ekitaldietan izandako mugimenduak ekitaldi bakoitzari dagokion Ondare garbiaren aldaketan egoera-orrian jasotzen dira.

Ekitaldiko emaitza, Mozkinen gaineko zerga kontuan hartu ondoren, Funtsaren "Partaideak" kontuan banatuko da.

2018ko abenduaren 31n, indibidualki %20tik gorako partaidetza-portzentajea zuten partaideen kopurua partaide batekoa zen ekitaldi-itxieran, eta Funtsaren ondarearen %22,30 hartzen zuen; beraz, partaidetza esanguratsua da 1082/2012 Errege Dekretuaren 31. artikulua ezarritakoaren arabera. 2017ko abenduaren 31n ez zegoen partaidetza esanguratsurik artikulua horretan xedatutakoaren arabera.

## 9. Bestelako oroipen-kontuak

2018 eta 2017ko abenduaren 31n, honela banatzen da epigrafea:

	2018	2017
Konpentsatu beharreko galera fiskalak	4 798 791,75	3 006 818,15
Bestelakoak (ikusi 6. oharra)	<u>260 725 871,41</u>	<u>331 739 871,41</u>
	<u>265 524 663,16</u>	<u>334 746 689,56</u>

## **Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión**

### **2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Urteko kontuen memoria** (eurotan adierazita)

---

#### **10. Administrazio Publikoak eta egoera fiskala**

Funtsaren erregimen fiskala Bizkaiko Foru Diputazioaren 11/2013 Foru Arauak, abenduaren 5ekoak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko zergari buruzkoak, arautzen du. Sozietateen gaineko zergarengatik 100eko 1eko karga-tasa ordaindu behar da, baldin eta 35/2003 Legearen (gero egindako aldaketak kontuan hartuta) bosgarren artikuluko 4. apartatuan aurreikusitako partaide-kopuru minimoa betetzen badu, aipatutako Foru Arauak hirurogeita hemezortzigarren artikuluko bigarren apartatuko a) letran ezarritakoaren arabera.

Gainera, 11/2013 Foru Arauaren aipatutako aldaketetan oinarrituta, 2018ko ekitaldian aplikatu beharreko zerga-oinarrien konpentsazioa baldin eta aurreko ekitaldietatik datozen likidazio edo autolikidazioaren xede izan badira, gehienez, konpentsazio horren aurreko zerga-oinarri positiboaren % 50 izango da. Muga % 70ekoa izango da Foru Arau honen 13. artikuluan zehaztutako mikroenpresa eta enpresa txikientzat.

Ez dago diferentzia esanguratsurik ekitaldiko zerga aurreko kontabilitate-emaizaren eta zergaren zerga-oinarriaren artean.

2018ko abenduaren 31n konpentsatu gabe dauden zerga-oinarri negatiboak 4.789.791,75 eurokoak dira (2017ko abenduaren 31n 3.006.818,15 eurokoak ziren).

Indarrean dagoen legeriaren arabera, Funtsean deklaratu behar diren zerga desberdinak ezin dira behin betikotzat jo agintari fiskalek ikuskatu arte edo lau urteko preskripzio-epea pasatu arte. Funtsak ikuskatzeko irekita dauzka azken lau ekitaldietako zerga guztiak.

Kontuan izanda aplikatu diren arau fiskalak beste era batera interpreta litzaketela agintari fiskalek eta eztabaidarako bide izan litezkeela, ikuskapenerako zabalik dauden urteetan pasibo fiskal kontingente batzuk egon litezke, baina ezin dira objektiboki kuantifikatu. Hala ere, Sozietate Kudeatzaileko administrazioailean iritziz, pasibo kontingente horiek gauzatzeko probabilitatea oso txikia da eta, edonola ere, ez lukete eragin aipagarririk izango Funtsaren urteko kontuetan, multzoan hartuta.

Emaizta positiboak izaten direnean, galdu-irabazien kontuko "Etekinen gaineko zerga" epigrafean erregistratzen du Funtsak mozkinen gaineko zergaren gastua, galera fiskalen konpentsazioaren efektua kenduta, horrelakorik dagoenean. Ez da etekinen gaineko diru-sarrerarik sortu Funtsak emaitza negatiboak lortzen dituen kasuan.

## **Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión**

### **2018ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Urteko kontuen memoria** (eurotan adierazita)

---

#### **11. Bestelako informazioa**

Sozietate Kudeatzaileak 35/2003 Legearen 67. artikuluan eta 1082/2012 Errege Dekretuaren 139. artikuluan –eta ondorengo aldaketetan– aurreikusten diren loturadun eragiketak egiten ditu Funtsaren kontura. Horretarako, Sozietate Kudeatzaileak interes-gatazkak saihesteko prozedurak hartu ditu bere gain eta ziurtatzen du eragiketa lotuak Funtsaren interes eskusiborako egiten direla eta merkatuaren prezioetan. Aldizkako txostenek, CNMVren 4/2008 Zirkularrean ezarritakoaren eta ondorengo aldaketek ezarritakoaren arabera, egindako eragiketa lotuei buruzko informazioa jasotzen dute. Era berean, Funtsaren kontura Sozietate Kudeatzailearekin edo Sozietate Kudeatzaileari lotutako pertsona edo entitateekin egindako loturadun eragiketa posibleak sartzen dira, horien izaera, eta eragiketetan hartutako arriskuak eta funtzioak adieraziz.

Gainera, "Jarduera eta arrisku-kudeaketa" oharrean adierazten da Sozietate Kudeatzailearen Taldeko erakundeek kudeatutako Inbertsio Kolektiboko Erakundeetan jatorria duten ostera lagatzeko komisioren zenbatekoa, ekitaldian zehar sortu izan balitz.

Gordailuzainarekin egindako eragiketei dagokienez, "Diruzaintza" Oharrean adierazten dira Funtsak Gordailuzainarekin dituen kontuak eta I. eta II. Eranskinetan jasotzen dira Gordailuzainarekin kontratatuta zeuden aldi baterako aktibo-eskuratzeak, 2018 eta 2017ko abenduaren 31n, hurrenez hurren.

Funtsak, dituen ezaugarriengatik, ez du langilerik ezta bulegorik ere eta, duen izaerarengatik, Inbertsio Kolektiboko Erakundeen Sozietate Kudeatzaile batek kudeatu behar du; horregatik, ingurumena babesteari eta langileen segurtasun eta osasunari buruzko gaiak Sozietate Kudeatzaile horri bakarrik dagozkio.

PricewaterhouseCoopers Auditores, S.L.k 2018 eta 2017ko urteko kontuen auditoria-zerbitzuengatik kobratutako zerbitzu-sariak 2 mila eurokoak dira kasu bietan. Aipatutako ekitaldietan auditoretza-sozietateak edo berari lotutako enpresek ez dute auditoretzaz bestelako zerbitzurik eskaini.

#### **12. Ondorengo gertaerak**

2019ko urtarrilaren 11n, Sozietate Kudeatzaileak eta Entitate Gordailuzainak eskatuta, CNMVk baimendu du xurgapen bidezko fusioa Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión funtsak xurga dezan Kutxabank Monetario Fondo de Inversión funtsa. Sozietate Kudeatzaileko Administrazioaileek aurreikusita daukate xurgapen bidezko fusio hori 2019ko ekitaldian zehar burutuko dela.

## Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión

### I. Eranskina. Inbertsio finantzarioen zorroa 2018ko abenduaren 31n

(eurotan adierazita)

Barneko zorroa	Dibisa	Hasierako balorazioa	Interesak	Arrazoizko balioa	(minusbalioa) /Gainbalioa
<b>Zor publikoa</b>					
BONUA EUSKO JAURLARITZA 4,15 2019/10/28	EUR	6 512 040,00	(258 495,86)	6 517 196,13	5 156,13
BONUA MADRILGO ERK. 4,69 2020/3/12	EUR	1 196 803,18	492,81	1 198 007,03	1 203,85
BONUA C.F. NAVARRA 4,30 2020/2/17	EUR	1 842 086,00	5 140,41	1 844 962,98	2 876,98
BONUA C.A.CANARIAS 4,93 2020-03-09	EUR	3 232 816,50	10 654,99	3 234 041,77	1 225,27
BONUA EUSKO JAURLARITZA 4,90 2020/3/26	EUR	3 317 820,00	(22 652,89)	3 322 380,01	4 560,01
BONUA ARAGOIKO ERK. 2,88 2019-02-10	EUR	6 949 897,50	(4 660,73)	6 949 334,43	(563,07)
BONUA MADRILGO ERK. 2,88 2019-04-06	EUR	7 003 471,02	(43 539,45)	7 001 693,95	(1 777,07)
BONUA GALIZIAKO XUNTA 1,37 2019-05-10	EUR	2 598 067,50	(11 658,36)	2 598 266,93	199,43
BONUA GAZTELA-LEON 6,51 2019/3/1	EUR	4 930 434,00	(29 709,78)	4 927 913,29	(2 520,71)
LETRA ESPAINIA ESTATUA -0,37 2019/2/15	EUR	2 005 380,00	(4 450,66)	2 005 810,66	430,66
LETRA ESPAINIA ESTATUA -0,39 2019/6/14	EUR	13 036 920,00	(14 116,62)	13 040 246,62	3 326,62
LETRA ESPAINIA ESTATUA -0,40 2019/7/12	EUR	8 032 400,00	(15 237,19)	8 033 717,19	1 317,19
LETRA ESPAINIA ESTATUA -0,33 2019/11/15	EUR	1 003 320,00	(410,97)	1 003 680,97	360,97
<b>Zor publikoa GUZTIRA</b>		<b>61 661 455,70</b>	<b>(388 644,30)</b>	<b>61 677 251,96</b>	<b>15 796,26</b>
<b>Errenta finko pribatu kotizatua</b>					
BONUA BANKIA SA 3,50 2019-01-17	EUR	8 129 268,00	(55 987,01)	8 125 865,94	(3 402,06)
BONUA CRITERIA CAIXA SAU 2,38 2019-05-09	EUR	5 458 735,00	(32 542,16)	5 456 594,83	(2 140,17)
BONUA BANKINTER 1,75 2019-06-10	EUR	3 399 264,00	(40 271,33)	3 397 925,04	(1 338,96)
BONUA BANCO DE SABADELL 0,70 2019/6/17	EUR	1 994 880,00	12 448,63	1 995 769,18	889,18
ORDAINDUKOA SANT CONSUMER FINANC 0,01 2019/3/28	EUR	12 996 847,47	2 773,44	13 003 201,65	6 354,18
ORDAINDUKOA TELEFONICA SA -0,23 2019-02-25	EUR	3 103 670,14	(2 559,70)	3 104 022,43	352,29
<b>Errenta finko pribatu kotizatua, GUZTIRA</b>		<b>35 082 664,61</b>	<b>(116 138,13)</b>	<b>35 083 379,07</b>	<b>714,46</b>
<b>Jaulkipen abalatuak</b>					
BONUA FADE 3,38 2019/3/17	EUR	10 116 906,00	(83 182,65)	10 113 880,90	(3 025,10)
BONUA FADE 0,85 2019-09-17	EUR	3 047 640,00	(16 132,49)	3 048 398,11	758,11
<b>Jaulkipen abalatuak, GUZTIRA</b>		<b>13 164 546,00</b>	<b>(99 315,14)</b>	<b>13 162 279,01</b>	<b>(2 266,99)</b>
<b>Aktiboak behin-behinean eskuratzea Gordailuzainarekin</b>					
REPO KUTXABANK -0,42 2019/1/2	EUR	21 000 000,00	-	21 000 000,00	-
<b>Aktiboak behin-behinean eskuratzea Gordailuzainarekin, GUZTIRA</b>		<b>21 000 000,00</b>	<b>-</b>	<b>21 000 000,00</b>	<b>-</b>
<b>Barneko Zorroa GUZTIRA</b>		<b>130 908 666,31</b>	<b>(604 097,57)</b>	<b>130 922 910,04</b>	<b>14 243,73</b>



## Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión

### I. Eranskina. Inbertsio finantzarioen zorroa 2018ko abenduaren 31n

(eurotan adierazita)

Kanpoko zorroa	Dibisa	Hasierako balorazioa	Interesak	Arrazoizko balioa	(minusbalioa) /Gainbalioa
<b>Zor publikoa</b>					
BONUA ESPAINIA ITALIA 0,35 2020/6/15	EUR	6 950 370,00	(18 405,52)	6 914 292,06	(36 077,94)
BONUA ANDALUZIARIKO JUNTA 5,20 2019/7/15	EUR	8 116 907,42	(251 797,64)	8 120 468,42	3 561,00
AKTIBOAK ITALIA ESTATUA 0,33 2019/5/14	EUR	9 381 482,00	7 285,52	9 389 236,48	7 754,48
AKTIBOAK ITALIA ESTATUA 0,42 2019/5/14	EUR	9 376 782,00	8 740,50	9 387 781,50	10 999,50
AKTIBOAK ITALIA ESTATUA 0,66 2019/11/14	EUR	2 284 889,00	1 940,22	2 292 240,78	7 351,78
<b>Zor publikoa GUZTIRA</b>		<b>36 110 430,42</b>	<b>(252 236,92)</b>	<b>36 104 019,24</b>	<b>(6 411,18)</b>
<b>Errenta finko pribatu kotizatua</b>					
BONUA UNITED TECHNOLOG 0,00 2020/5/18	EUR	3 309 834,00	(3 056,85)	3 296 522,85	(13 311,15)
BONUA FCA BANK SPA IRELAND 2,63 2019/4/17	EUR	1 614 752,00	26 893,71	1 614 441,96	(310,04)
BONUA INTESA SAN PAOLO SPA 2,75 2020/3/20	EUR	2 852 874,00	(5 258,42)	2 829 263,87	(23 610,13)
BONUA NATWEST MARKETS PLC 0,08 2020-03-02	EUR	2 609 204,00	(3 660,17)	2 593 222,04	(15 981,96)
BONUA KONINKLIJKE PHILIPS 0,00 2019-09-06	EUR	2 384 120,00	(4 564,41)	2 381 203,16	(2 916,84)
BONUA FORD MOTOR CREDIT CO 0,11 2021-05-14	EUR	2 100 042,00	303,96	2 010 947,59	(89 094,41)
BONUA CARREFOUR BANQUE 0,56 2019-10-21	EUR	1 572 320,00	(12 069,12)	1 571 943,59	(376,41)
BONUA GLAXOSMITHKLINE CAP 0,00 2020/5/21	EUR	3 315 477,00	(4 750,30)	3 309 370,30	(6 106,70)
BONUA COMMERZBANK AG 0,63 2019/3/14	EUR	3 237 856,00	(17 259,54)	3 237 323,54	(532,46)
BONUA OP CORP. BANK PLC 0,18 2021/5/22	EUR	907 974,00	(1 442,27)	905 806,67	(2 167,33)
BONUA BAT INTL FINANCE PLC 0,38 2019-03-13	EUR	2 004 660,00	2 612,51	2 003 608,04	(1 051,96)
ORDAINDUKOIA SANT CONSUMER FINANC -0,15 2019-01-10	EUR	6 904 740,38	(4 451,40)	6 904 914,00	173,62
BONUA DEUTSCHE TELEKOM IF 0,03 2020-04-03	EUR	2 007 100,00	(1 367,96)	2 002 571,13	(4 528,87)
BONUA TAKEDA PHARMACEUTICA 0,38 2020/11/21	EUR	1 398 544,00	652,80	1 399 572,54	1 028,54
BONUA ING BANK NV 0,08 2020-11-26	EUR	1 404 032,00	(78,75)	1 403 665,08	(366,92)
BONUA SANTANDER UK PLC 2,63 2020/7/16	EUR	2 217 096,00	(8 725,97)	2 208 018,57	(9 077,43)
BONUA BANCO BILBAO VIZCAYA 1,00 2021-01-20	EUR	3 061 470,00	23 251,28	3 056 764,88	(4 705,12)
BONUA NATWEST MARKETS PLC 5,38 2019/9/30	EUR	432 956,00	(11 385,35)	432 060,53	(895,47)
BONUA REPSOL INTL FINANCE 4,88 2019/2/19	EUR	1 515 120,00	57 935,37	1 514 877,51	(242,49)
BONUA RED ELECTRICA FIN SA 2,38 2019-05-31	EUR	3 133 110,00	(59 307,36)	3 132 371,33	(738,67)
BONUA ALSTOM SA 3,00 2019/7/8	EUR	1 368 042,00	(28 600,74)	1 366 607,22	(1 434,78)
BONUA BBVA SENIOR FINANCE 2,38 2019-01-22	EUR	6 782 460,00	(24 953,20)	6 780 505,25	(1 954,75)
BONUA BPE FINANCIACIONES S 2,00 2020-02-03	EUR	3 214 762,00	8 412,20	3 210 928,46	(3 833,54)
BONUA SANOFI 0,00 2019-03-22	EUR	3 008 370,00	(6 317,75)	3 008 027,75	(342,25)
BONUA ENI SPA 4,13 2019/9/16	EUR	2 476 746,00	22 648,04	2 476 710,64	(35,36)
BONUA VODAFONE GROUP PLC 0,63 2019-02-25	EUR	5 372 002,00	(62 337,14)	5 372 176,00	174,00
BONUA COCA COLA CO/THE 0,00 2019-03-08	EUR	4 217 220,00	(15 640,32)	4 217 782,32	562,32
BONUA GOLDMAN SACHS 0,38 2019/4/29	EUR	4 036 960,00	(28 512,61)	4 037 073,61	113,61

## Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión

### I. Eranskina. Inbertsio finantzarioen zorroa 2018ko abenduaren 31n

(eurotan adierazita)

Kanpoko zorroa	Dibisa	Hasierako balorazioa	Interesak	Arrazoizko balioa	(minusbalioa) /Gainbalioa
BONUA VW INT FINANCE NV 0,03 2019/3/30	EUR	4 010 200,00	(7 968,47)	4 007 928,47	(2 271,53)
BONUA PFIZER INC 0,00 2019-03-06	EUR	4 016 480,00	(14 916,83)	4 016 476,83	(3,17)
BONUA BANK OF AMERICA CORP 0,18 2019/7/26	EUR	4 373 751,00	(16 262,61)	4 376 813,54	3 062,54
BONUA AT&T INC 0,26 2019/6/4	EUR	3 122 413,00	(17 448,16)	3 121 688,96	(724,04)
<b>Errenta finko pribatu kotizatua, GUZTIRA</b>		<b>93 982 687,38</b>	<b>(217 625,83)</b>	<b>93 801 188,23</b>	<b>(181 499,15)</b>
<b>Jaulkipen abalatuak</b>					
BONUA BANCA MONT DEI PASC 0,75 2020/1/25	EUR	4 052 640,00	(11 861,35)	4 022 143,31	(30 496,69)
BONUA CP COMBOIOS DE PORTU 4,17 2019-10-16	EUR	1 034 660,00	7 081,33	1 035 101,41	441,41
<b>Jaulkipen abalatuak, GUZTIRA</b>		<b>5 087 300,00</b>	<b>(4 780,02)</b>	<b>5 057 244,72</b>	<b>(30 055,28)</b>
<b>Kanpoko Zorroa GUZTIRA</b>		<b>135 180 417,80</b>	<b>(474 642,77)</b>	<b>134 962 452,19</b>	<b>(217 965,61)</b>

## Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión

### II. Eranskina. Inbertsio finantzarioen zorroa 2017ko abenduaren 31n

(eurotan adierazita)

Barneko zorroa	Dibisa	Hasierako balorazioa	Interesak	Arrazoizko balioa	(minusbalioa) /Gainbalioa
<b>Zor publikoa</b>					
BONUA EUSKO JAURLARITZA 4,15 2019/10/28	EUR	6 512 040,00	(3 800,13)	6 520 980,40	8 940,40
BONUA ANDALUZIARIKO JUNTA 4,75 2018/1/24	EUR	9 900 445,82	58 349,57	9 898 110,13	(2 335,69)
BONUA MADRILGO ERK. 5,75 2018/2/1	EUR	11 841 674,43	4 294,44	11 837 278,47	(4 395,96)
BONUA ARAGOIKO ERK. 2,88 2019-02-10	EUR	1 042 820,00	15 997,28	1 043 123,27	303,27
BONUA GAZTELA-LEON 6,27 2018/2/19	EUR	4 664 880,00	118 253,55	4 663 585,77	(1 294,23)
BONUA MADRILGO ERK. 4,99 2018/6/17	EUR	2 835 326,00	(105 404,47)	2 837 542,52	2 216,52
BONUA C.F. NAVARRA 4,88 2018/10/31	EUR	2 184 400,00	(90 160,65)	2 188 210,65	3 810,65
BONUA EUSKO JAURLARITZA 0,00 2018/11/16	EUR	5 964 240,00	20 058,08	5 986 421,92	22 181,92
BONUA GALIZIARIKO XUNTA 6,13 2018/4/3	EUR	2 119 460,00	3 749,52	2 119 807,58	347,58
LETRA ESPAINIA ESTATUA -0,41 2018/5/11	EUR	20 039 000,00	(9 812,88)	20 046 212,88	7 212,88
LETRA ESPAINIA ESTATUA -0,40 2018/12/7	EUR	20 079 200,00	(5 013,66)	20 104 413,66	25 213,66
<b>Zor publikoa GUZTIRA</b>		<b>87 183 486,25</b>	<b>6 510,65</b>	<b>87 245 687,25</b>	<b>62 201,00</b>
<b>Errenta finko pribatu kotizatua</b>					
BONUA AYT CEDULAS CAJAS V 4,75 2018-12-04	EUR	3 706 920,00	(33 525,83)	3 706 473,78	(446,22)
BONUA CORES 4,50 2018-04-23	EUR	1 995 760,00	(9 611,75)	1 996 324,89	564,89
BONUA BANKIA SA 3,50 2019-01-17	EUR	5 028 048,00	112 087,04	5 024 584,30	(3 463,70)
BONUA BANKINTER 1,75 2019-06-10	EUR	3 399 264,00	20 319,01	3 397 625,70	(1 638,30)
BONUA AYT CEDULAS CAJA GLO 0,00 2018/2/22	EUR	6 862 609,00	130 692,45	6 870 917,55	8 308,55
BONUA BANCO DE SABADELL 0,65 2019/6/17	EUR	1 994 880,00	11 034,23	2 007 710,98	12 830,98
BONUA BANCO BILBAO VIZCAYA 0,00 2018/11/25	EUR	7 996 640,00	1 842,58	8 009 197,42	12 557,42
ORDAINDUKOA SANT CONSUMER FINANC 0,01 2018/5/21	EUR	9 997 822,93	1 612,02	10 002 450,97	4 628,04
ORDAINDUKOA SANT CONSUMER FINANC 0,01 2019/3/28	EUR	12 996 847,47	1 196,64	13 011 935,72	15 088,25
BONUA BANCO DE SABADELL 0,30 2018/6/29	EUR	4 000 760,00	(171,26)	4 002 357,19	1 597,19
ORDAINDUKOA TELEFONICA SA -0,25 2018/6/14	EUR	3 003 675,17	(343,44)	3 003 748,18	73,01
<b>Errenta finko pribatu kotizatua, GUZTIRA</b>		<b>60 983 226,57</b>	<b>235 131,69</b>	<b>61 033 326,68</b>	<b>50 100,11</b>
<b>Jaulkipen abalatuak</b>					
BONUA FADE 5,60 2018/9/17	EUR	10 533 700,00	41 607,62	10 543 388,27	9 688,27
BONUA FADE 3,88 2018/3/17	EUR	14 404 020,00	145 087,71	14 398 273,39	(5 746,61)
<b>Jaulkipen abalatuak, GUZTIRA</b>		<b>24 937 720,00</b>	<b>186 695,33</b>	<b>24 941 661,66</b>	<b>3 941,66</b>
<b>Kreditu garantizatuen erakunde-baloreak</b>					
ZEDULAK CAJAMAR CAJA RURAL 3,75 2018/11/22	EUR	4 181 160,00	(25 544,20)	4 182 811,60	1 651,60
ZEDULAK BANKINTER 3,13 2018-02-05	EUR	2 577 475,00	1 171,52	2 577 273,00	(202,00)
<b>Kreditu garantizatuen erakunde-baloreak, GUZTIRA</b>		<b>6 758 635,00</b>	<b>(24 372,68)</b>	<b>6 760 084,60</b>	<b>1 449,60</b>

## Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión

### II. Eranskina. Inbertsio finantzarioen zorroa 2017ko abenduaren 31n (eurotan adierazita)

Barneko zorroa	Dibisa	Hasierako balorazioa	Interesak	Arrazoizko balioa	(minusbalioa) /Gainbalioa
<b>Aktiboak behin-behinean eskuratzea Gordailuzainarekin</b>					
REPO KUTXABANK -0,40 2018/1/3	EUR	15 000 000,00	(328,78)	15 000 020,41	20,41
<b>Aktiboak behin-behinean eskuratzea Gordailuzainarekin, GUZTIRA</b>		<b>15 000 000,00</b>	<b>(328,78)</b>	<b>15 000 020,41</b>	<b>20,41</b>
<b>Kreditu-ent.etako ageriko edo 12 hil. arteko epemugako gordailuak</b>					
GORDAILUAK CAIXABANK 2018-01-29	EUR	30 000 000,00	-	30 006 330,27	6 330,27
<b>Kreditu-ent.etako ageriko edo 12 hil. arteko epemugako gordailuak GUZTIRA</b>		<b>30 000 000,00</b>	<b>-</b>	<b>30 006 330,27</b>	<b>6 330,27</b>
<b>Barneko Zorroa GUZTIRA</b>		<b>224 863 067,82</b>	<b>403 636,21</b>	<b>224 987 110,87</b>	<b>124 043,05</b>

## Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión

### II. Eranskina. Inbertsio finantzarioen zorroa 2017ko abenduaren 31n

(eurotan adierazita)

Kanpoko zorroa	Dibisa	Hasierako balorazioa	Interesak	Arrazoizko balioa	(minusbalioa) /Gainbalioa
<b>Zor publikoa</b>					
BONUA ESPAINIA ITALIA 0,75 2018/1/15	EUR	8 080 000,00	(49 435,68)	8 082 110,03	2 110,03
BONUA ANDALUZIARIKO JUNTA 5,20 2019/7/15	EUR	2 393 596,42	4 274,33	2 398 643,66	5 047,24
<b>Zor publikoa GUZTIRA</b>		<b>10 473 596,42</b>	<b>(45 161,35)</b>	<b>10 480 753,69</b>	<b>7 157,27</b>
<b>Errenta finko pribatu kotizatua</b>					
BONUA AMGEN INC 4,38 2018-12-05	EUR	3 899 112,50	(87 237,04)	3 903 554,54	4 442,04
BONUA COCA COLA CO/THE 0,00 2019-03-08	EUR	4 217 220,00	(7 024,06)	4 223 152,06	5 932,06
BONUA GOLDMAN SACHS 0,37 2019/4/29	EUR	4 036 960,00	(10 960,37)	4 044 542,37	7 582,37
BONUA MORGAN STANLEY 6,50 2018/12/28	EUR	2 228 860,00	(98 553,42)	2 233 601,91	4 741,91
BONUA GOLDMAN SACHS 0,13 2018/12/31	EUR	3 511 935,00	(4 228,57)	3 517 239,04	5 304,04
BONUA TDC A/S 4,38 2018-02-23	EUR	2 285 206,00	10 918,01	2 285 018,26	(187,74)
BONUA PFIZER INC 0,00 2019-03-06	EUR	4 016 480,00	(6 127,69)	4 021 967,69	5 487,69
BONUA CARREFOUR BANQUE 0,56 2019-10-21	EUR	1 572 320,00	(1 526,90)	1 574 948,37	2 628,37
BONUA ORANGE S.A. 1,88 2018/9/3	EUR	7 691 325,00	(47 438,10)	7 708 560,70	17 235,70
BONUA DANONE 0,00 2018-11-03	EUR	4 012 647,00	(5 746,83)	4 014 266,83	1 619,83
BONUA AUTOROUTES DU SUD 4,00 2018-09-24	EUR	2 741 180,00	(36 180,39)	2 743 689,68	2 509,68
BONUA WUERTH FINANCE INTL 3,75 2018-05-25	EUR	3 896 512,50	(3 867,04)	3 896 227,31	(285,19)
BONUA HEIDELBERGCEMENT FIN 9,50 2018-12-15	EUR	2 296 500,00	(104 660,80)	2 296 057,47	(442,53)
BONUA SES GLOBAL AMERICAS 1,88 2018-10-24	EUR	3 937 518,00	(30 201,18)	3 941 123,30	3 605,30
BONUA UBS AG (LONDON) 0,50 2018/5/15	EUR	805 616,00	(846,43)	806 022,98	406,98
BONUA CITIGROUP INC. 1,75 2018/1/29	EUR	2 025 260,00	10 130,05	2 025 109,13	(150,87)
BONUA COMMERZBANK AG 0,63 2019/3/14	EUR	3 237 856,00	5 727,00	3 239 969,00	2 113,00
BONUA BANK OF AMERICA CORP 0,17 2019/7/26	EUR	4 373 751,00	(5 729,86)	4 389 275,61	15 524,61
BONUA BMW US CAPITAL LLC 0,00 2018/4/20	EUR	5 004 500,00	(4 045,48)	5 008 545,48	4 045,48
BONUA GAS NATURAL CAPITAL 4,13 2018/1/26	EUR	2 993 648,00	(78 615,99)	2 993 520,07	(127,93)
BONUA GAS NATURAL CAPITAL 5,00 2018-02-13	EUR	3 147 330,00	3 215,39	3 146 402,42	(927,58)
BONUA IBERDROLA INTERNAT. 4,25 2018/10/11	EUR	4 255 360,00	(82 121,89)	4 259 687,92	4 327,92
BONUA BBVA SENIOR FINANCE 3,75 2018/1/17	EUR	7 745 900,00	35 741,18	7 744 259,50	(1 640,50)
BONUA RED ELECTRICA FIN SA 2,38 2019-05-31	EUR	3 133 110,00	18 181,01	3 129 612,96	(3 497,04)
BONUA ALSTOM SA 3,00 2019/7/8	EUR	1 368 042,00	11 266,59	1 367 715,89	(326,11)
BONUA BBVA SENIOR FINANCE 2,38 2019-01-22	EUR	3 912 404,00	74 029,72	3 913 532,55	1 128,55
BONUA SCANIA CV AB 0,02 2018-10-24	EUR	701 204,00	(616,41)	702 170,18	966,18
BONUA CAISSE CENTR CREDIT 4,00 2018-01-12	EUR	3 839 453,00	8 646,26	3 838 409,99	(1 043,01)
BONUA HSBC HOLDINGS PLC 0,27 2018-12-21	EUR	4 023 640,00	(11 844,04)	4 030 945,15	7 305,15
BONUA TELEF.EMISIONES SAU 0,37 2018/1/31	EUR	998 640,00	1 946,09	998 719,16	79,16

## Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión

### II. Eranskina. Inbertsio finantzarioen zorroa 2017ko abenduaren 31n

(eurotan adierazita)

Kanpoko zorroa	Dibisa	Hasierako balorazioa	Interesak	Arrazoizko balioa	(minusbalioa) /Gainbalioa
BONUA SOC.GENERALE 0,10 2018-07-22	EUR	3 014 400,00	(7 717,93)	3 015 798,68	1 398,68
BONUA VODAFONE GROUP PLC 0,62 2019-02-25	EUR	5 372 002,00	(20 758,27)	5 380 152,72	8 150,72
BONUA HENKEL AG & CO KGAA -0,07 2018-09-13	EUR	951 244,50	(808,77)	952 433,27	1 188,77
BONUA REPSOL INTL FINANCE 0,37 2018/7/6	EUR	6 237 566,00	(19 131,52)	6 243 226,44	5 660,44
BONUA CASSA DEPOSITI PREST 1,00 2018-01-26	EUR	3 639 456,00	(3 473,42)	3 639 861,04	405,04
BONUA INNOGY FINANCE B.V. 5,13 2018-07-23	EUR	2 235 497,97	(27 858,65)	2 236 502,36	1 004,39
BONUA AT&T INC 0,25 2019/6/4	EUR	3 122 413,00	(7 228,11)	3 129 046,69	6 633,69
<b>Errenta finko pribatu kotizatua, GUZTIRA</b>		<b>126 482 069,47</b>	<b>(534 747,86)</b>	<b>126 594 868,72</b>	<b>112 799,25</b>
<b>Jaulkipen abalatuak</b>					
BONUA ICO 4,88 2018-02-01	EUR	2 315 553,75	(23 896,64)	2 315 472,26	(81,49)
BONUA ICO 0,10 2018/9/12	EUR	1 749 825,00	650,51	1 756 404,39	6 579,39
BONUA BANCA MONT DEI PASC 0,50 2018-01-20	EUR	4 013 600,00	(3 740,71)	4 013 813,75	213,75
<b>Jaulkipen abalatuak, GUZTIRA</b>		<b>8 078 978,75</b>	<b>(26 986,84)</b>	<b>8 085 690,40</b>	<b>6 711,65</b>
<b>Kanpoko Zorroa GUZTIRA</b>		<b>145 034 644,64</b>	<b>(606 896,05)</b>	<b>145 161 312,81</b>	<b>126 668,17</b>

## **Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión**

### **2018ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiaren kudeaketa-txostena**

---

#### **Negozioen (merkatuen) eboluzioa, Funtsaren egoera eta eboluzio aurreikusgarria**

##### **Faktore ekonomikoa erabakigarriak**

2018. urtea nabarmenki okerragoa izan da alderdi ekonomiko eta geopolitikoei dagokienez aurreko urtearekin alderatuta, bereziki urte horren amaieran. Hazkunde ekonomiko globala dibergentea izan da, eta AEBren sendotasuna nabarmendu da, politika fiskal hedakor batek sustatuta eta, aldiz, ahuldu egin dira gainerako eremu nagusiak, bereziki Europa; izan ere, urtearen amaieran automobilgintza-sektoreko araudi-aldaketek eragin diote. Bestalde, banku zentralek pizgarri monetarioak erretiratzeko jarraitzen dute, FEDek interes tasak igotzen eta balantzea murrizten, eta EBZk bonuak erosteko hileko zenbatekoa jaisten. AEBk aplikatutako neurri protekzionistek, halaber, ziurgabetasun handia sortu dute mundu mailan izan daitekeen merkataritza gerra baten inguruan. Alderdi horrek, azken batean, munduko hazkundearen sendotasun horri eragingo lioke. Azkenik, aipatu behar dira, halaber, herrialde emergente batzuetako ahultasuna (Argentina eta Turkia, batez ere) eta Italiako gobernu berriaren jardueraren inguruko ziurgabetasuna (bereziki aurrekontuetan).

Merkatu finantzarioei dagokienez, urtearen ezaugarria izan da arriskuarekiko aldentzeko joera handia izatea, bereziki urtearen amaiera aldera, hazkunde ekonomikoaren zatian aipatutakoarekin bat. Horrela, errenta aldakorreko indize nagusiek beherakada handiekin amaitu duten (S&P 500 -%6,24, Eurostoxx 50 -%14,34, Ibex 35 -%14,97, Nikkei 225 -%12,08, MSCI Emerging -%16,63). Etorkizuneko hazkundeari buruzko aipatutako zalantzek eta merkataritza-gerrari buruzko ziurgabetasunak beherakada horiek sortu dituzte.

Errenta finkoan, arriskutik aldentzeko joera urteko alderdi nabarmena izan da, bereziki bigarren seihilekoan. Horrela, aldi horretan, zor publikoaren errentagarritasuna AEBn eta Alemanian jaitsi zen (18 eta 6 op hurrenez hurren 10 urteko bitartean), eta babes-aktiboak izan dira (zor amerikarraren BET igo egin zen urtearen lehenengo zatian FEDen igoera horiei jarraiki). Arrisku-aktiboak, ordea, urtean narriatu dira. Burtsako jaitsierek era negatiboan eragin dute zor korporatiboaren diferentzialetan (121 op Xover indizearen kasuan); aldiz, zor emergentearen kasuan, Argentina eta Turkiaren kasuek, FEDek interes-tasak igotzeko prozesuarekin batera, bilakaeran narriadura handia ekarri dute urtean zehar.

Azkenik, dibisei dagokienez, arriskutik aldentzeko joera hori, halaber, islatu dela gurutzatze nagusietan. Horrela, ingurune horretan, dolarrak eta yenak kapitalak erakarri dituzte, gainerako dibisa nagusien aldean errealizatuz (%4,48 eta %7,09, hurrenez hurren, euroaren aldean).

## Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión

### 2018ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiaren kudeaketa-txostena

#### 2019rako aurreikuspenak

##### 1. Koiuntura ekonomiko globala

Munduko ekonomia nagusien hazkunde ekonomikoko espektatibak ondoko taulan azaltzen dira:

	2018	2019	2020
<b>Crecimiento mundial</b>	<b>3,70%</b>	<b>3,50%</b>	<b>3,60%</b>
<b>Economías avanzadas</b>	<b>2,30%</b>	<b>2,00%</b>	<b>1,70%</b>
EE.UU.	2,90%	2,50%	1,80%
Eurozona	1,80%	1,60%	1,70%
Alemania	1,50%	1,30%	1,60%
Francia	1,50%	1,50%	1,60%
Italia	1,00%	0,60%	0,90%
España	2,50%	2,20%	1,90%
Reino Unido	1,40%	1,50%	1,60%
Japón	0,90%	1,10%	0,50%
<b>Economías emergentes</b>	<b>4,60%</b>	<b>4,50%</b>	<b>4,90%</b>
Rusia	1,70%	1,60%	1,70%
China	6,60%	6,20%	6,20%
India	7,30%	7,50%	7,70%
Brasil	1,30%	2,50%	2,20%
México	2,10%	2,10%	2,20%

Aurreko apartatuan esan den bezala, hazkunde ekonomikoa nabarmen jaitsi da azkeneko hilabeteetan zehar, hainbat faktorerengatik. Horrela, ingurunean ziurgabetasuna sumatzen da oraindik, eta alderdi hauek nabarmentzen dira aurtengo urterako:

- **AEB:** Trumpen administrazioaren ekintza politikoaren agresibitatea, baita gobernuaren itxiera, merkataritza-gerra eta defizit bikiak ere, eta Erreserba Federalaren papera asko iraun duen eta amaierara hel daitekeela iragartzen duten ziklo ekonomikoren aurrean, dira eztabaidagune nagusiak ekonomia amerikarraren inguruan.
- **Europa:** *Brexitaren* prozesuaren kudeaketa da 2019an Europako ekonomiarako bidegurutze handia, bigarren mailan utziz Europako Banku Zentrala hain hedakorra ez den moneta-politika batera egokitzeko gaitasuna, Italiakoa bezalako



## Kutxabank Renta Fija Corto, Fondo de Inversión

### 2018ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiaren kudeaketa-txostena

ekonomietan dagoen ahultasun erlatiboko ingurune batean eta klima-aldaketa kudeatzeko egiturazko aldaketarako erronka bete-betean.

- **Emergenteak:** baldintza orokorretan arrazoiz saneatutako egoera finantzario batek aukera ematen du optimismo neurritsu batekin aurre egiteko AEBk hasitako merkataritza-gerraren bilakaera, are gehiago Erreserba Federalak espero den bezala moneta-politika gogortzeari fretoa jartzen dion heinean, klase izanik Txinaren jarrera eta neurriak aurreikus daitekeen bere ekonomiaren moteltzea kudeatzeko.

#### 2. Merkatuen eboluzioa

Planteatutako egoerak egoera konplikatua marrazten du merkatuentzat. Interes-tasen kurbei dagokienez, minimo historikoen zonan, hazkunde- eta inflazio-aurreikuspenek iradokitzen dute epe ertainera igoera bat izango dela, bereziki Europan eta Japonian, baina ziklo ekonomikoaren ahultasunak zaildu egiten du espektatiba horiek irudikatzea epe laburrera. Kasu guztietan gaur egungo maila baxuak murrizketa gehigarri bat egiteko marjina eskasa utzi beharko lukete.

Errenta aldakorrak zalantzarik gabe hegakortasun handia ekar dezaketen ziurgabetasun-faktore ugari egin behar die aurre, baina balorazio-mailak oro har erakargarriak dira, bereziki inbertsio-aukera desberdinei buruzko baldintzei dagokienez, eta gainera 2019an, aurreko ekitaldian ez bezala, berriz ere FEDen "*put*"-a izan daiteke, hau da, behar izanez gero Banku zentralak likidezia injektatzeko ezartzen duen babes-sarea; beraz, ezin dugu espero errebalorizazio handirik, nolabaiteko optimismoa izan behar da, arriskuarekiko esposizioa neurritsua hartzeko aukera emango duena.